


**GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK ALDI BATEZ BABESTEKO EUSKAL
PROGRAMA**

JARRAIPEN-MISIOA

KOLONBIA 2018

2018ko urtarrilaren 21etik 26ra



Medellin hiriaren bista partziala, Nutibarra mendixkatik (Kolonbiako Antiokia)

Txostenaren egilea:

Verónica Álvarez García, Eraginaren eta Partaidetza Sozialaren taldekoa



Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez babesteko Euskal Programa



Laguntzaileak:



Bilbo, 2018.

EDUKIEN AURKIBIDEA

SIGLAK	3
HITZAURREA	5
ESKER ONA	7
GIZARTE ESKUBIDEEN EGOERA KOLONBIAN BEHATZEKO ETA HAREN JARRAIPENA EGITEKO EUSKAL ORDEZKARITZA	8
- Ordezkarien taldea	8
- Lurralde bisitatuak eta egindako bilerak	9
TESTUINGURUA	12
- Gatazka: Bake-akordioa	12
- Giza Eskubideen Defendatzaileak	15
- Antioquia Departamentuaren egoera.....	18
AZTERGAIAK	19
- Indarkeria eta zigorgabetasuna lurraldeetan	19
- Giza eskubideen defendatzaileen egoera.....	25
- Bake-akordioa ezartzea	29
- Askapen Nazionalerako Armadarekin (ELNrekin) negoziatzea	36
- Nazioarteko Erkidegoaren eginkizuna	37
EGOERA ZEHATZAK	38
- Richar Nelson Sierra Alquerque eta OIA	38
- Comunidad de Paz (San José de Apartadó).....	40
ONDORIOAK	42
- Kezkak.....	42
- Gomendioak.....	43
BIBLIOGRAFIA	45

SIGLAK

ACNUR: Iheslarietako Nazio Batuen Goi Komisarioa

AdP: Bake-akordioa

AGC: Kolonbiako Autodefentsa Gaitanistak

CCNPB: Norman Pérez Bello Korporazio Klaretarra

CERREM: Arriskuak ebaluatzen eta neurriak proposatzeko batzordea

CINEP: Ikerkuntzako eta Herri Hezkuntzako Ikastegia

CSIVI: Bake-akordioaren ezarpena bultzatzeko, egiaztatzen eta haren jarraipena egiteko batzordea

GED: Giza Eskubideen defendatzailea

GGEE: Giza eskubideak

NZH: Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa

ELN: Nazio Askapenerako Armada

ESMAD: Istiluen aurkako Eskudroi Mugikorra (Polizia Nazionala)

ETCR: Gaitzeko eta Birgizarteratzeko Lurralde-gunea

FARC: Herritarren Indar Iraultzaile Alternatiboa

FARC-EP: Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak-Herriaren Armada

FENSUAGRO: Nekazaritza eta Abelazkuntzako Federazio Nazional Sindikal Unitarioa

INDEPAZ: Garapenaren eta Bakearen aldeko Ikasketen Institutua

IPC: Herri Heziketako Institutua

MOVICE: Kolonbiako Krimenen Biktimen Mugimendua

OACNUDH: Nazio Batuen erakundeko Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoa

OIA: Antiokiako Erakunde Indigena

ONIC: Kolonbiako Erakunde Nazional Indigena

OTC: Kooperaziorako Bulego Teknikoa

PBI: Peace Brigades International (Bakearen Aldeko Nazioarteko Brigadak)

PDET: Lurralde Ikuspegiaren arabeko garapen-plana

PES: Zaintzarako Plan Berezia

SIADDHH: Giza eskubideen defendatzaileen aurka Kolonbian egiten diren erasoen gaineko informazio-sistema

UNP: Babeserako Unitate Nazionala

HITZAURREA

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak martxan du, 2011z geroztik, *Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez babesteko Euskal Programa*, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin batera. Programa horren barruan, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan aldi batez babesten ditu jazarpena eta mehatxuak jasaten dituzten gizarte-erakundeetako pertsonak edo horren arriskuan daudenak, giza eskubideen aldeko defentsan jarduteagatik. Nazioartean dituen laguntza-sareak zabaltzeko eta indartzeko asmoz, Euskadin egingo duten sei hilabeteko egonaldirako ekintza hauek proposatzen dira:

1. Laguntza psikosoziala: babesaren ikuspegi integrala lantzen du, eta honako alderdi hauek sartzen dira: alderdi pertsonalak, antolamenduari buruzkoak eta politikoak; indarkeria politikoaren inpaktuengatik arreta berezia behar duten pertsonentzako laguntza psikoterapeutikoa; eta babespean dauden pertsonen zainketa, aldi batez herrialdetik irten eta sartu behar izateagatik.
2. Agenda politikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko egonaldian egiten den lanaren helburua nazioarteko sareak zabaltzea eta indartzea da, pertsona horiek eta haien erakundeak instituzionalki eta politikoki babesteko. Praktikan, sare horiek babes-mekanismo bezala jarduten dute; hala, jendeak modua du lurraldean giza eskubideak babesten jarraitzeko. Horrez gain, agenda politikoak balio du euskal herritarrei eta EAEko erakunde publikoei — baita Espainiakoei eta Europakoei ere— erakusteko zein den giza eskubideen defentsan lanean aritzen diren erakundeen mehatxu-egoerak eta zein diren haien aldarrikapenak.
3. Prestakuntza-agenda: haien kezkek eta interesak zein diren ikusita, asmoa da prestakuntza espezializatua ematea, giza eskubideen defentsari eta sustapenari buruz. Egin duten lanagatik aintzatespena jaso duten pertsonak direnez, txostengile gisa ere parte hartuko dute esparru akademikoetan eta sozialetan.

Programa CEAR-Euskadik koordinatzen du, eta Hautaketa Batzordea dago. Hona hemen kideak: Eusko Jaurlaritzak (Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza); Hegoa Institutua (Euskal Herriko Unibertsitatea); Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (Deustuko Unibertsitatea); Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEren Koordinatzailea; eta Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarleen Foroa. ANSUR kolektiboko kideek ere parte hartzen dute, irteeran, egonaldian eta itzuleran segurtasuna eta babesa kudeatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan 2017an babestu ziren pertsonetako bat Kolonbiara itzuli eta gero, euskal ordezkari batzuk Kolonbiara joan ginen 2018ko urtarrilaren 21etik 26ra, honako xede hauek betetzeko asmoz: norberaren egoeraren eta komunitatearen egoeraren jarraipena bertan egitea, babes-sarea indartzea eta Eusko Jaurlaritzaren, Legebiltzarraren eta

antolatzaileen babesa erakustea. Horrez gain, data horretan urtea betetzen zen bake-akordioa sinatu zutenetik.

Richar Nelson Sierra Alquerque da Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez babesteko Euskal Programaren bidez babestu den kidea: lider indigena da; zehazki, Antiokiako Erakunde Indigenako kidea. Erakunde horrek Antiokia Departamentuko 212 komunitate indigena — Embera Dóbida, Embera Eyábida, Embera Chamí, Guna Dule eta Senú herrietakoak— ordezkatzen ditu politikaren arloan. Erakundea 1985ean sortu zuten, herri indigenen eskubideak aldarrikatzeko eta jatorrizko lurraldeak berreskuratzeko, gerra-egoeran. Lurraldea eta lurraldearen ondasunak kontrolatzeko gerra zen, eta, bake-prozesua egin arren, iraun egiten du.

Txosten honetan bisitaldian jaso ditugun daturik esanguratsuenak bildu ditugu. Herrialdearen egoerari buruzko ikuspegi orokorra *Testuingurua* atalean azaldu dugu. Erakunde eta mugimendu sozialen, instituzio publikoen eta nazioarteko organismoen eskutik jasotako informazioa hurrengo ataletan jaso dugu. Eta, azkenik, euskal ordezkarien taldeko iritziak, kezka zehatzak eta gomendioak *Ondorioak* deituriko atalean, txostenaren amaieran, bildu ditugu.

ESKER ONA

Aldi Batez Babesteko Euskal Programa eragin politikodun babes-tresna da, jazarpen- eta mehatxu-egoeretan giza eskubideak babesten lan egiten duten defendatzaileentzat. Horretan ahalegintzen gara Euskal Autonomia Erkidegoan babesten ditugun aldian, eta abiapuntu horretatik proposatzen dugu ordezkariak lurra bisitatzeko.

Era berean, modu bat da euskal gizarteari erakusteko nolako egoeran aritzen diren giza eskubideen defendatzaileak, liskarrak izaten diren tokietan. Eguneroko lan hori, duintasun eta ausardia laudagarriekin, ekarpen baliagarria da gure berradiskidetze-eraldaketa sozialaren prozesuetarako.

Euskal Ordezkaritzak eskerrak eman nahi dizkie giza eskubideen aldeko elkarteei eta Kolonbiako gizarte- eta herri-mugimenduei ere, egindako harrera apartagatik eta bakea eta justizia soziala lortzeko egindako salaketa eta proposamenengatik ere. Esker ona bereziki adierazi nahi diegu Richar Nelson Sierra Alquerque kideari eta Antiokiako Erakunde Indigenari (OIA), egiten duten erresistentzia-lanarengatik, bai eta bizitza eta lurraldea etengabe defendatzeagatik ere.

Eskerrak, halaber, Kolonbiako erakundeei eta nazioarteko eragileei bisitaldi honetan zehar laguntzeko izan duten prestutasunagatik eta eskainitako denborarengatik. Eskerrik asko giza eskubideen defendatzaileen egoerari eta bake-akordioak herrialdean izan duen ezarpenari buruzko iritzia gurekin partekatzeagatik.

Azkenik, elkartasuna eta laguntza adierazi nahi diegu indarkeriak lekuz aldarazi dituen Cáceres udalerriko familia guztiei; bai eta Hidroituango presako hondamendiak eragindako Bajo Cauca eremuko komunitate guztiei ere. Halaber, gure laguntza eta elkartasuna adierazi nahi diegu Kolonbia indarkeriarik gabeko herrialdea izatearen aldeko apustua egin zuten eta konpromisoa egunero berresten duten pertsona guztiei.

«Bihotz onak behar ditugu. Herriarrok bakea behar dugu. Zahartzaroan baino ez dugu zendu nahi».

Richar Nelson Sierra Alquerque

GIZARTE ESKUBIDEEN EGOERA KOLONBIAN BEHATZEKO ETA JARRAIPENA EGITEKO EUSKAL BATZORDEA

ORDEZKARIEN TALDEA

Eusko Jaurlaritza

Monika Hernando Porres, Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

María Pilar Díez Arregui, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

Iker del Río Lahidalga, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Berdintasun Batzordea

Carmelo Barrio Baroja, Grupo Popular Vasco-Euskal Talde Popularra

Eduardo Mancisidor Artaraz, Eusko Legebiltzarreko letradu nagusia.

Iñigo de Iturrate Ibarra, Euzko Abertzaleak, Nacionalistas Vascos

Iñigo Martínez Zatón, Elkarrekin Podemos Taldea

Oihana Etxebarrieta Legrand, EH Bildu

Rafaela Romero Pozo, PSE-EE

EAKO gizarte-erakundeak

Josune Fernández García, Mugarik Gabe

Patricia Bárcena García, CEAR-Euskadi

Verónica Álvarez García, CEAR-Euskadi



Kolonbia

Ana Teresa Vergara Casama, Antiokiako Erakunde Indígena (Organización Indígena de Antiokia, OIA)

Richar Nelson Sierra Alquerque, Antiokiako Erakunde Indígena (Organización Indígena de Antiokia, OIA)

📍 BISITATU DITUGUN LURRALDEAK ETA IZANDAKO BILERAK



Antiokiako Departamentuko Medellín hiria:

- Gizarte-erakundeak eta mugimenduak
 - Antiokiako Erakunde Indígena (Organización Indígena de Antioquia, OIA)
 - Herritarren Ekintza (Acción Ciudadana)
 - Héctor Abad Gómez Batzorde Iraunkorra
 - Giza Eskubideak Antioikian defendatzeko Batzorde Iraunkorra
 - Comunidad de Paz (San José de Apartadó)
 - Kolonia-Europa-ABE koordinazioa
 - Justizia eta Bakearen aldeko Kristauen Erakunde (Corporación Cristianos y Cristianas por la Justicia y la Paz)
 - Libertad erakunde juridikoa (Corporación Jurídica Libertad)
 - Mujeres que crean, Bizitzaren aldeko Korporazioa (Corporación para la Vida Mujeres que crean)
 - Viva la Ciudadanía korporazioa (Corporación Viva la Ciudadanía)
 - Forjando Futuros Fundazioa (Fundación Forjando Futuros)

- Pepe Breu Fundazioa
 - Herri Heziketako Institutua (Instituto Popular de Capacitación, IPC)
 - Aberriaren martxa (Marcha Patriótica)
 - Ibaiak Bizirik Mugimendua (Movimiento Ríos Vivos)
 - Emakumeen Bake Ibilaldia (Ruta Pacífica de las Mujeres)
- Erakunde publikoak:
 - Herriaren Defentsa Erakundea (Antiokia)
 - Antiokiako Gobernazioa
 - Gobernuko Idazkaritza (Gobernazioa)
 - Bake eta gatazka ondoko kudeatzailletza (Gobernazioa)
 - Kudeatzailletza Indigena (Gobernazioa)
 - Giza Eskubideen Zuzendaritza (Gobernazioa)
 - Nazioarteko erakundeak
 - Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioa (OACNUDH)
 - Iheslarietako Nazio Batuen Goi Komisarioa (ACNUR)
 - Genero Berdintasunaren eta Emakumearen Ahalduntzearen aldeko Nazio batuen Entitatea (NBE EMAKUMEAK)

Cáceres (Antiokiako Bajo Cauca):

- Erakunde publikoak:
 - Cáceresko Alkatetza
 - Cáceresko Gobernuko Idazkaritza
 - Cáceresko *Personería* erakundea

Bogotá (Cundinamarco Departamentua):

- Gizarte-erakundeak eta mugimenduak
 - Kolonbiako Erakunde Nazional Indigena (ONIC)
 - Ikerkuntzako eta Herri Hezkuntzako Ikastegia (CINEP)
 - ANSUR kolektiboa
 - Tayrona Konfederazio Indigena (CIT)
 - Herrien Kongresua
 - Justiziaren eta Bakearen aldeko Elizarteko Batzordea (Comisión Intereclesial de Justicia y Paz)
 - Norman Pérez Bello Korporazio Klaretarra (CCNPB)
 - Nekazaritzari buruzko goi-bilera
 - Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Federazio Nazional Sindikal Unitarioa (FENSUAGRO)

- Babeserako eta Autobabeserako Larrialdiko eta Erakundeen Indartze-laguntzetarako Fondoa (Fondo para Ayudas de Emergencia y Fortalecimiento Organizacional en Protección y Autoprotección, FFP)
 - Juventud Rebelde
 - Embera herriko liderra (Lideresa del pueblo Embera)
 - Wayúu herriko liderra (Lideresa del pueblo Wayúu)
 - Aberriaren martxa (Marcha Patriótica)
 - Hitzarmen Mahai Iraunkorra
 - Estatu-krimenen biktimen mugimendua (MOVICE)
 - Protection International
 - Kolonbiarekiko ermandade eta elkartasun sarea (Red de Hermandad y Solidaridad con Colombia)
 - Emakumeen Bake Ibilaldia (Ruta Pacífica de las Mujeres)
 - Somos Defensores
- Erakunde publikoak:
 - Segurtasun-bermeen batzorde nazionala
 - Kongresuko giza eskubideen batzordea
 - Egia argitzeko, bizikidetzaz sustatzeko eta etorkizunean ez errepikatzeko batzordea
 - Segurtasun-bermeen batzorde nazionala
 - Giza eskubideen presidentetza-saila
 - Babeserako Unitate Nazionala (UNP)
 - Kolonbiarako Espainiako Enbaxada
 - Kolonbiako kooperazio-bulego teknikoa
 - Perun, Kolonbian eta Txilen jarduteko Eusko Jaurlaritzako ordezkariak
- Nazioarteko erakundeak
 - Nazio Batuen Agentzietako Kolonbiarako koordinatzaile egoiliarra
- Alderdi politikoak:
 - Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak (FARC)

TESTUINGURUA

Kolonbiak 48.133.475 biztanle ditu; horietatik % 85,94 mestizoak dira, % 10,62 beltzak, % 3,43 indigenak eta % 0,01 *rom* herrikoak edo ijitoak¹. 82 herri indigena ofizialki aitortuta daude; gehienak, nekazaritza-eremuetakoak. Cauca, Nariño, La Guajira, Putumayo eta Amazonas departamentuetan daude, batik bat.

Hizkuntza ofiziala gaztelania da; baina, horrez gain, amerindiarren 64 hizkuntza ere hitz egiten dira, kreole hizkuntzekin batera (adibidez, bandé, palenkeru eta ijitoen hizkuntza).

Kolonbian natura-baliabide ugari daude, baina aberastasunaren banaketa oso desorekatua da; munduko egoera larrienetako bat bizi da bertan, hain zuzen ere.

GATAZKA: BAKE-AKORDIOA

1960ko hamarkadatik, gatazka politiko, sozial, ekonomiko eta armaturik luzeena bizi da Kolonbian. Gatazka horrek inoiz ez bezalako kaltea eta oinazea eragin dizkie herritarrei. Bakearen aldeko goi-komisarioaren arabera, 2016a arte gatazka armatuak 7.902.000 biktima eragin ditu: 6,7 milioi pertsona lekuz aldarazi ditu; 220.000 hil dituzte; 13.000 pertsonari sexu-erasoa egin diete; 45.000 pertsona desagerrarazi dituzte; eta 10.000 pertsona torturatu dituzte.²

Kolonbiako Gobernu eta FARC-EPko gerrilla La Habana hirian batzartu ziren³, eta, bilera horien ondorioz, borroka armatuari uztea adostu zen. 2016ko azaroaren 24an bake-akordioa sinatu zen; eta, zehazki, lehen akordioaren bigarren bertsioa sinatu zuten, lehena herritarrek baztertu baitzuten, plebiszitu batean («Gatazka amaitzeko eta bake egonkorra eta iraunkorra eraikitzeko behin betiko akordioa» deitu zioten lehenari). Behin betiko akordioan funtsezko sei gai hauek biltzen dira:

1. Kolonbiako landa-eremu berrirantz: nekazaritzaren erreforma osoa.

Lurra eskuratzeko eta erabiltzeko planak, nekazaritza-plan nazionalak eta lurralde-ikuspegia duten garapen-programak biltzen ditu.

¹ Kolonbiako Estatistika Administrazio Sail Nazionalaren (DANEren) datuen arabera.

² <http://www.altocomisionadoparalapaz.gov.co/Prensa/Comunicados/Documents/2016/proceso-paz-colombia-cartilla-acuerdo-victimas.pdf>

³ Txosten honetan FARC-EP sigla erabiltzen dugunean, Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak-Herriaren Armada (*Fuerzas Armadas Revolucionarias de Colombia-Ejército del Pueblo*) esan nahi dugu. FARC erabiltzen dugunean, Herritar Guztien Indar Iraultzaile Alternatiboa (*Fuerza Alternativa Revolucionaria del Común*) esan nahi dugu. Horrela bereizten ditugu.

2. Politikan parte hartzea: bakea eraikitzeko bide demokratikoa zabaltzea.

Bide demokratiko berria da, eta agente berriek ere parte hartzen dute. Horrez gain, proiektu politiko berriak daude, herritar gehiagok parte hartzen dute eta politikaren eta armen arteko lotura hautsi da.

3. Gatazkaren amaiera.

Alde biek sua eta etsaitasuna behin betiko etetea erabaki dute; armak entregatu dira; normalizazioa bultzatzeko bidezidor eta iraganbideak sortu dira; gizartea, ekonomia eta politika berriz sustatu dira; eta segurtasun-bermeak eman zaizkie borrokalari ohiei.

4. Legez kanpoko drogen arazoari irtenbide ematea.

Landa-garapenaren ikuspegitik, legez kanpoko erabilerarako laboreen arloa eta krimen antolatuen eta narkotrafikoaren aurkako borroka lantzen ditu. Horrez gain, osasun publikoaren ikuspegitik, kontsumoa ere lantzen du.

5. Gatazken biktimei buruzko akordioa: «Egia, justizia eta erreparazioa emateko eta etorkizunean ez errepikatzeko sistema integrala», bakea eta giza eskubideen aldeko konpromisorako jurisdikzio berezia barne hartuta.

Hainbat mekanismo judizialez eta judizioz kanpoko mekanismoz osatuta dago, honako xede hauek lortzeko: biktimen eskubideak ahalik eta gehien errespetatzea; gertatutakoaren kontu ematea; segurtasun juridikoa bermatzea; elkarbizitza lortzen laguntzea; adiskidetzea; gatazka berriz ez errepikatzea; gatazka armatuari uztea eta bakea lortu arteko iragate-fasea.

6. Ezartzea, egiaztatzea eta berrestea.

Akordioa ezartzen ari den egiaztatzeko eta horren jarraipena egiteko sistema bat abiarazita dago, nazioarteko laguntzarekin batera.

FARC-EPen gatazka armatua amaitu zenetik, agerikoa da gatazkaren ondoriozko heriotzen kopuruak behera egin duela. Gatazken azterketa egiteko baliabide-zentroaren zifrei jarraikiz, «gatazkaren historiako datuekin erkatuta, FARC-EPekin adostutako bake-prozesua dela eta, gutxienez gatazkaren ondoriozko 2.796 heriotza gutxiago gertatu dira (gehienak FARC-EPen borrokalariak eta indar publikoetako kideak izango ziren (1.553 eta 556, hurrenez hurren))».⁴

Hala eta guztiz ere, Mundubat Fundazioak eta Peace Brigades Internationalek Kolonbian egin zuten nazioarteko egiaztatze-misioaren arabera, ez da guztiz bete bake-akordioa sinatu eta gero sortu zen itxaropena. Horretan kontuan hartu behar da indarkeria historian zehar politikari, ekonomia-interesei (legezko eta legez kanpoko interesei) eta lurraren jabetzari lotuta egon dela; hortaz, gatazka armatua amaitu baino gehiago egin behar da, indarkeria erabat ezabatzeko⁵.

⁴ <http://blog.cerac.org.co/monitor-del-cese-el-fuego-bilateral-y-de-hostilidades-final#more-7466>

⁵ Mundubat eta PBI (2017).

Bake Ikerketen Nazioarteko Kroc Institutuaren txostenean jaso da bake-akordioaren ezarpenean lehentasuna eman behar zaiola, batez ere, honako pertsona hauek babesteari: FARC-EPeko borrokalari ohiak; giza eskubideen defendatzaileak; lurraldeetako komunitateak; eta, bereziki, akordioa ezartzen eginkizunak bete dituzten pertsonak. Prozesuan gako diren egileen segurtasuna eta babesa hobetzen ez badira, arriskuan jarriko da FARCen eta gizartearen parte-hartze eraginkorra akordioan jasota dagoen bakea eraikitzeko prozesurik zabalenean.⁶

Kolonbiako Gobernuak eta Nazio Askapenerako Armadak elkarrizketak izaten dituzte 2016ko martxoaren 30etik. Su-etena ez zen berriro, etenaldia amaitu ondoren; hartara, Nazio Askapenerako Armadak jarduera armatuari berriro ekin zion 2018ko urtarrilean.

Akordioaren osteko egoera horretan, giza eskubideak defendatzea arrisku handiko jarduera bilakatu da Kolonbian.

FARC-EPeko borrokalari ohien egoera eta segurtasun-bermeak

Bake-akordioaren 3.2 puntuan FARC-EPeko kideak gizarte zibilaren arlo ekonomiko, sozial eta politikoetan berriz hastea ezarrita dago. Behin betiko akordioaren ezarpenaren jarraipena, bultzada eta egiaztapena egiteko batzordeak (CSIVik) sustatu du Gaitzeko eta Birgizarteratzeko 26 Lurralde-gune (ETCR) osatzea. Honako hauek dira lurralde-gune horien helburuak: FARC-EPeko kideak gaitzea eta birgizarteratzea, bizitza zibilera itzul daitezen; proiektu produktiboak prestatzea; eta alboko komunitateen prestakuntza-beharrei erantzutea.⁷

Dena den, bake-akordioa sinatu eta urtebetea igaro ondoren, Jean Arnault-ek, Kolonbiarako Nazio Batuen egiaztatze-misioko buruak, adierazi zuen bera eszeptikoa zela birgizarteratzeari buruz. 2017ko maiatzean, FARC-EPen armak metatzeko prozesua amaitu zenean, 8.000 borrokalari ohi zeuden bidezidor-guneetan (gaitzeko eta birgizarteratzeko lurralde-guneen aurrekoak); abuztuan, % 70ek baino ez zuten han jarraitzen; eta 2017ko azaroan, % 45ek baino ez zuten gaitzeko eta birgizarteratzeko lurralde-guneetan jarraitzen. Arnaultek adierazi zuen leku horietatik irtetea erabakitzeko arrazoi nagusia lurralde-gune horiek eragindako itxaropenean konfiantzarik ez izatea dela⁸.

Horrez gain, borrokalari ohiek uste dute Kolonbiako Gobernuak ez dituela bete segurtasun-arloko konpromisoak. Mundubatek eta PBik beren kezkak azaldu dituzte, txostenean. Haien ustez, gaitzeko eta birgizarteratzeko lurralde-guneak inguratzen dituzten talde neoparamilitarrak dira mehatxurik handienaren eragileak. Joan den urriaren 20an FARCEk CSIViri aurkeztutako txostenean jakinarazi zuen 25 borrokalari ohiren, preso baten eta FARC-

⁶ https://kroc.nd.edu/assets/257593/informe_kroc.pdf

⁷ <http://www.reintegracion.gov.co/es/reincorporacion/Paginas/Los-ETCR.aspx>

⁸ <https://colombia.unmissions.org/palabras-jean-arnault-en-el-foro-de-el-espectador-%E2%80%99Cla-reincorporaci%C3%B3n-y-reconciliaci%C3%B3n-dimensiones>

EPeko kideen 11 senideren hilketak⁹. Segurtasunik egon ezean, eta gizartean zein ekonomian behar bezala berriro hasi ezean, legez kanpoko ekonomietan eta disidentzietan sartzeko arriskua sortzen da.

Nahiz eta FARC-EPek ekintza armatuari utzi eta Herritarren Indar Iraultzaile Alternatiboa (FARC) izeneko alderdi politikoa sortu, borrokalari ohiek ez dute behar bezalako segurtasun fisikorik edo juridikorik, arlo politikoan berriz hasteko; gainera, borrokalari ohi batzuk atxilotuta daude, amnistia- edota indultu-ziurtagiria eduki arren. Hori dela eta, FARCEk 2018ko otsailaren 9an jakinarazi zuen maiatzeko presidentetza-hauteskundeetarako kanpaina bertan behera uzteko asmoa, erakundeak behar bezalako segurtasun-bermeak eduki arte.¹⁰

Andrew Gilmour-ek, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Bulegoko idazkariorde nagusiak, 2017ko urrian bisitatu zuen Kolonbia, eta ondorioztatu zuen bakea ez dela lortuko, mugimendu armatuari utzi diotenak behar bezala gizarteratu arte. Gainera, berak azpimarratu zuen Estatuko erakundeek ekintzek eta laguntza ekonomikoek aurretik FARC-EPek hartuta zeuden lekuetara iritsi behar dutela, «hutsune» hori betetzeko, eta leku horietan legez kanpoko talde armatuek beren jarduera ez indartzeko.¹¹

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK

Gatazkaren ondoriozko indarkeria murriztu bada ere, agerikoa da giza eskubideen defendatzaileen aurkako indarkeria nabarmen igo dela Kolonbian. Horren harira, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Bulegoko (OACNUDHeko) idazkariorde nagusiak ohartarazi du, FARC-EPekiko gatazka armatua amaitu arren, giza eskubideen defendatzaileen hilketak maiztasun ikaragarrian geratzen ari direla, eta horrek kolokan jartzen duela Kolonbian biziki behar den epe luzeko egonkortasuna.

Era berean, Herriaren Defentsa Erakundeak ohartarazi du gatazkak eta borrokek daudela bere garaian FARC-EPek kudeatzen zituzten legez kanpoko ekonomiak eta lurraldeak kontrolatzeko (ekonomia horiek Kolonbiako gerraren erregaia izan ziren, hain zuzen ere). Halaber, eliteen interesek eta eskualdeko botere-taldeek zerikusia dute horretan: haiek adierazi baitute bake-akordioaren kontra daudela, bai eta akordioaren ondoriozko erreformen eta aldaketen kontra ere. Talde armatuekin — besteak beste, Nazio Askapenerako Armadarekin eta neoparamilitarrekin— loturak dituzten sektore horietako batzuek defendatzaileen eta oposizio-mugimendu politikoen aurkako erasoak sustatzen dituzte.

⁹ CSIVI FARC “*Violaciones de derechos humanos a integrantes de FARC EP. Noviembre de 2016 - Octubre de 2017*”. Zerrenda 2017ko urriaren 20an jaso zen. Kroc Institutuak eginiko txostenetik hartu da.


¹⁰ <https://noticias.caracol.com/colombia-decide-2018/farc-anuncia-suspension-de-la-campanya-pide-garantias>

¹¹ <http://www.ohchr.org/SP/NewsEvents/Pages/DisplayNews.aspx?NewsID=22215&LangID=S>

Egoera horrek gehien eragiten die lurraldea, ondasun naturalak, biktimen eskubideak eta lurren berreskuratzea defendatzen dituzten pertsonen¹², beste talde horien helburuen balizko arriskubidetzat jotzen baitituzte.

Somos Defensores programaren bitartez emandako datuen arabera, 560 giza eskubideen defendatzaile eraso zieten 2017an. Eraso horiek honela gauzatu ziren: 106 hilketa, 370 mehatxu, 50 atentatu, 23 atxiloketa arbitrario, 9 judizializazio eta isilpeko informazioaren 2 ebasketa.¹³ Hori horrela, agerian uzten da giza hilketen kopurua igo dela, 2016ko datuekin erkatuta. Gainera, joera horrek 2018an ere jarraitzen du, lehen hiruhilekoan 46 defendatzaile hil dituztelako. Horrek % 130eko igoera osatzen du, 2017ko aldi bereko datuekin erkatuta. Eraso horien ustezko egileak identifikatzea oso zaila izan arren —kasuen % 55etan erasotzaileak ezezagunak direlako—, honako hauek aipatzen dira: talde paramilitarrak (% 36), gerrillak (% 5) eta indar publikoak (% 4).¹⁴

Beste iturri batzuen arabera, 2017an 174 giza eskubideen defendatzaile hil zituzten Kolonbian, infografian erakusten den bezala.



¹² Defensoría del Pueblo (2017).

¹³ SIADDHH (2018).

¹⁴ <https://www.somosdefensores.org/attachments/article/150/Boletin%20Enero-Marzo%20SIADDHH%202018.pdf>

Defendatzaileen aurkako jazarpenarekin eta indarkeriarekin batera, Kolonbiako agintariak estigmatizatu eta baztertu egiten dituzte. Bakearen aldeko Jurisdikzio Berezian (JEPean), adibidez, 100. artikuluan ezartzen da giza eskubideen defendatzaileek ezin dutela jurisdikzio horretako kargurik hartu. Horrez gain, debekatu egiten du honako pertsona hauek kargu horietarako hautatzea: «bere izenean edo beste pertsona baten izenean, giza eskubideen, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren edo nazioarteko zigor-zuzenbidearen urraketak salatzeko, interes pribatuen aldeko eta Estatuaren aurkako erreklamazioak ordezkatu edo kudeatu dituztenak edo ordezkaritza hori egin duten erakundeetako kideak izan direnak» edo «Giza eskubideen nazioarteko sistemetan edo nazioarteko epaitegietan Kolonbiako Estatuaren aurkako ekintzak izapidetu dituztenak». PBIren eta Mundubat Fundazioaren arabera (2017), artikulua horrek zentsura sortzen du, giza eskubideen defendatzaileen lanari erasotzen dio, eta gatazka armatuaren eta Estatu-errepresioaren biktimei lagundu dieten abokatuen eta adituen lana estigmatizatzen du.

Lider indigenak

Kolonbiako Erakunde Nazional Indigenaren (ONIC) ustez, herri indigenen eskubide kolektiboen egoera kezagarria da. Gainera, erakunde horrek azpimarratu du indigenen bizitzaren, osotasun fisikoaren eta osotasun kulturalaren aurkako ekintzek jarraitu egiten dutela. Izan ere, mugak ezartzen zaizkie lurralde indigenak eskuratzeko, eta legezko zein legez kanpoko taldeak egoten dira aurrez FARC-EPeK hartuta zeuden eremuetan, indigenen lurralde-eskubideak urratzen dituzten beste egoera batzuen artean.

Hori horrela, ONICek jakinarazi du 2018ko urtarrilean soilik giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren 11 urraketa-kasu gertatu direla, komunitate eta herri indigenetako kideen aurka: besteak beste, biztanleak indarkeriaz lekuz aldaraztea; 4 pertsonari mehatxu egitea (buruei eta komuneroei); 3 indigena erailteza; eta militarrek 2 lurralde indigena hartzea. Hil dituzten pertsonetako bat Diana Luz Solano izan da: Senú herriko emakume indigena zen, Antiokiako Zaragozako erresguardoko gobernadorearen alaba. Talde paramilitarrek urtarrilaren 16an hil zuten.

Ingurumenaren defendatzaileak¹⁵

Global Witness-ek, munduko ingurumenaren defendatzaileen aurkako indarkeriaren berri ematen duen erakundeak, ohartarazi zuen Kolonbian 32 ingurumenaren defendatzaile erail zituztela 2017an. Zifra horren arabera, Kolonbia hirugarren postuan dago, ingurumena defendatzeko herrialde arriskutsuen artean; Brasil eta Filipinak daude lehenengo bi postuetan.

¹⁵ <http://pacifista.co/colombia-en-el-top-3-de-paises-peligrosos-para-ser-lider-ambiental/>

Horrez gain, Global Witnessek adierazi du, FARC-EPEk, bake-akordioa sinatu eta gero, ingurumen-eremu estrategikoetan utzi duten botere-hutsunearen ondorioa dela egoera hori, neurri handi batean. Nekazaritzako komunitateak narkotrafikatzaileen, paramilitarren eta lur-jabeen artean daude, hain zuzen ere. Horrez gain, hauxe adierazi dute: komunitateek lurren eta bertako baliabide naturalen erabilerari buruzko erabakietan parte hartzeko aukera eduki ezean, hitza hartu eta egoera salatzen duten pertsona guztiak jazarpenaren, espetxe-zigorren eta heriotza-mehatxuen biktimak izango direla.

Emakume defendatzaileak¹⁶

Giza eskubideen emakumezko defendatzaileen aurkako erasoei dagokienez, Somos Defensores programaren txostenen arabera, azken urteotan erasoak jasan duten defendatzaileen % 23 eta % 40 artean emakumeak izan dira. Giza hilketen kopurua bereziki larria da. 2017ko lehen sei hilekoan 7 emakumezko defendatzaile hil zituzten, erakunde horren arabera. Bestela esanda, sei hilabetean hil zituzten aurreko hiru urteetako bakoitzean hil zuten beste emakumezko defendatzaile.

🔗 ANTIOKIAREN EGOERA

Herriaren Defentsa Erakundearen datuen arabera¹⁷, 2017an 15 giza eskubideen emakumezko defendatzaile hil zituzten Antiokia Departamentuan. Beste iturri batzuen arabera, denboratarte horretan 20 hil zituzten (Nodo Antiokia 2017); edo 23 (Indepaz eta Aberriaren Martxa).

Biktima gehienak ekintza komunaleko batzarretako kideak, ingurumen-prozesuetako buruak eta lurraldearen defendatzaileak ziren. Meataritzako liderren, ingurumen-arloko liderren, lider komunalen, lider erkideen, gizarte-liderren, afrikar ondorengoen, nekazarien, lurralde aldarrikatzen dituzten pertsonen, indigenen, sexu- eta genero-orientazio anitza duten biztanleen erakundeetako liderren aurkako 28 kasu dokumentatuta daude. Horrez gain, ekintza komunaleko batzarretako buruen aurkako 2 atentatu ere dokumentatu ziren.

Horrela, agerian uzten da erasoak eta jazarpenak giza eskubideen liderren eta defendatzaileen aurka egiten direla, bereziki; are gehiago, liderrek eta defendatzaileek ingurumenean eta komunitateen bizi-kalitatean eragin handia duten megaproiektu ekonomikoen aurkako kontraesanak sortzen badituzte. Proiektu horien adibide dira meataritza-proiektuak, enpresa hidroelektrikoenak edo errepideen trazadura, besteak beste.

¹⁶ <https://www.somosdefensores.org/index.php/en/publicaciones/informes-siaddhh/146-aguzate>

¹⁷ Alerta Temprana, 026-18 zenbakikoa; 2018ko otsailaren 28an igorrita.

AZTERGAIAK

Atal honetan jaso dugu giza eskubideen aldeko erakundeek, mugimendu sozialek, nazioarteko erakundeek eta instituzioek helarazi diguten informazioa. Euskal ordezkariok haiekin bildu gara, Giza Eskubideen Defendatzaileen Egoera Kolonbian behatzeko eta aztertzeko Misioa egin bitartean.

INDARKERIA ETA ZIGORGABETASUNA LURRALDEETAN

Euskal ordezkariarekin bildu diren agente guztiek adierazi digute indarkeria politikoak jarraitu egiten duela lurraldeetan; gainera, buruen aurka egiteaz gain, lurrak aldarrikatzen dituztenen eta FARC-EPeke kide birgizarteratuen eta, orokorrean, herritar zibilen aurka ere egiten dela. Hortaz, oso kezagarritzat jotzen dute egoera. Gainera, lurraldeetan gatazka armatuak jarraitu egiten du, FARC-EPeke lehen kontrolatzen zituzten eremuak gaur egun Nazio Askapenerako Armadak (ELNk) eta talde neoparamilitar batzuek kontrolatzen dituztelako.

Gizarte-erakundeek eta mugimenduek kondenatzen dute defendatzaileen aurkako kasuen zigorgabetasuna, beste pertsona-profil batzuen kasuetan baliatzen den eraginkortasunarekin erkatuta. Haiek azaldu dutenaren arabera, Gobernu Nazionalak lider horien bizitza bermatzeko borondaterik ez izateagatik eta lurraldeetan talde paramilitarrak eta indar publikoa ados jarrita egoteagatik sortzen da egoera hori.

Bestalde, enpresa handien —banana-industriak, meatzaritza-enpresak, etab.— eta gatazkako eragile armatuen artean lotura zuzena dagoela frogatzea zaila izan arren, argi dago enpresa horiek onera egin dutela, hein handi batean, herrialdean gertatu diren indarkeriazko egoerei esker. Beraz, uste dute indarkeriaren negozioak irabazi ekonomiko handiak ekarri ahal dituela. Are gehiago, instituzio batzuetan pentsatzen da Gobernuak aurre egin behar dion garapen soziala eta segurtasuna egituratzeko erronka oso handia dela; eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri oso lotuta dauden egiturazko kausei ere heldu behar diela.

Badirudi frogatutzat eman daitekeela enpresa horien jardunak ingurumena kaltetzen duela, akuiferoak kutsatzen dituela, hezeguneak eta laboreak suntsitzen dituela, eta komunitateen bizi-kalitatea txikiagotzen duela. Horren harira, gizarte-erakundeek ingurumena leheneratzeko sistema bat eskatzen dute, eta lurraldea bizitza eta natura zaintzeko eremutzat hartzea.

Legez kanpoko talde armatuak hirietara ere heltzen dira. Adibidez, lurraldeetatik irtenarazten dituzten pertsona asko iristen dira Medellín hirira, eta periferian ezartzen dira. Medellínko auzoetako indarkeria hain handia da, ezen ezinezkoa baita hiria gobernatzea. Errealitate hori espezifiko da, gerra egunerokoa da, eta hori ez zen negoziatu La Habanako bileretan. Horren ondorioz, biztanleek ez dute fede handirik izaten bake-akordioan.

Giza eskubideen aldeko erakundeek ere salatzen dute legez kanpoko militarrek eta militar instituzionalek lurraldeak hartzea. 15 departamentutan alerta gorria dago, eta «positibo faltsuak» deituriko hilketak berriro ere gertatzen hasi dira; bereziki, Arauca Departamentuan. Beraz, hori eta biztanleek armadan duten konfiantzarik eza oinarri hartuta, hainbat instituziok pentsatzen dute Fiskaltzak oraindik asko duela egiteko.

Bestalde, gizarte-erakundeek uste dute eredu ekonomiko nagusiaren presioak —kultura-aniztasuna, komunitate indigenak, nekazarien komunitateak eta afrikar ondorengo komunitateak gutxien dituenak— berekin ekartzen dituela kultura indigenen eta tradizionalen sarraskia, herrien genozidioa, eskubide politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketa eta liderren hilketak selektiboak.

Horren harira, hainbat erakunde eta indigenen ordezkari adierazi dute haiek ez dutela bermerik ikusten herri indigenak zaintzeko, kontuan hartzen bada lurraldeak suntsitzen eta militaritzen ari direla. Alde batetik, FARC-EPek lehen hartuta zituzten lurraldeak kontrolatzeko gatazka handiak daude legez kanpoko eragile armatuen artean; eta horrek indarkeria eta lekualdaketa behartu ugari sorrarazten ditu. Beste alde batetik, ondasun naturalen erauzketak herri indigenen lurraldea eta bizimodua suntsitzen ditu; batez ere, Kolonbiako Gobernuaren inbertsio-politikek atea irekitzen dietelako erauzketa-enpresei. Nazioarteko erakunde batzuek ohartarazi dute Estatuaren, enpresen eta komunitateen arteko gatazka egon daitekeela.

Horren adibide argi bat La Guajira da. Lurralde hori ia basamortu bihurtu da, erauzketa-jardunak eta klima-aldaketek ingurumenean sortu duten eraginaren ondorioz; bestalde, lurpeko ondasunak oso baliotsuak dira, enpresa zehatz batzuen interesen ikuspegitik. Wayúu herria eremu horretan dago, eta oinarritzko gizarte-eskubideak eta beren identitatea babesteko arreta eta defentsa eskatzen ditu. Instituzioek, ordea, ez diote jaramonik egiten, eta botere ekonomikoa eta politikoa dituzten taldeek mehatxu egiten diote arbasoen lurraldetik alde egin dezan, «garapena» ez oztopatzeko.

Wayúu herria desagertzeko arrisku larrian dago, biztanleek ez baitaukate oinarritzko premiak asetzetik, hau da, ura edo elikagaiak lortzerik.

Eskualdeko 5 urtetik beherako haurren % 27,9k desnutrizio-arazoak dituzte (nazioaren batezbestekoa baino bi aldiz gehiago); eta agintari indigenek kalkulatu dute azken bost urteotan 2 urtetik beherako 5.000 adingabe baino gehiago gosez hil direla.

Horrez gain, haiek salatzen dute komunitateak bertan behera utzi izana. Izan ere, instituzio batzuek onartzen dute, lehen FARC-EPek hartuta zeuden lurraldeetan indar publikoa sartu den arren, funtsezko arazoa ezin izango dela konpondu, harik eta instituzioen jarduna —justizia,

gizarte-inbertsioa, azpiegiturak, etab.— lurralde horietan integralagoa izan arte. Estatuak eragiten duen abandonu-egoera hori bereziki zaila da Antiokian, herritar indigenen % 60 udal buru nagusietatik urrun bizi direlako (hiru eguneko bidaia egin behar da oihanean zehar, oinez).

Biztanleak lekuz aldatzera behartzea

Talde armatuek lurraldea kontrolatzeko borroka egiten duten eremu batzuetan komunitate batzuk harrapatuta geratzen dira alde bien erasoen artean, ihes egin ezinik. Beste komunitate batzuk, ordea, lekuz aldarazten dituzte erasotzaileek, eta hiriburuetara edo hiri handietara joatera behartzen dituzte. Egoera oso larriak osatzen dira, eta eragina izaten dute kulturaren, autonomian, lurraldean eta mugimendu indigenaren batasunean.

Zifrei erreparatzen badiegu, instituzio batzuek behin eta berriro adierazi dute lekualdaketen kopuruak 2017an nabarmen egin zuela behera, duela 10 urteko kopuruarekin erkatuta¹⁸, baina horren harira ohartarazi behar da jaitsiera hori erregistroak egiteko prozesuen aldaketen ondorioa izan daitekeela. Gainera, organismo horiek zehaztu dute lekualdaketa kolektiboaren kopuruak gora egin duela azken bost urteotan, eta banakako lekualdaketen kopuruak behera egin duela. Iraganean 7 banakako lekualdaketa gertatzen ziren lekualdaketa kolektibo bakoitzeko, baina korrelazio hori aldatu da gaur egun.

ACNURek¹⁹ 2018ko urtarrilean, hau da, hilabete bakar batean, 1.000 pertsonaren lekualdaketa behartu salatu zuen, eta Antiokiako eta Nariñoko lekualdaketa masiboak azpimarratu zituen²⁰.

Euskal ordezkariak lurra bisitatu zutenean, Alto Tamaná, Campanario, Ponciano, Buenos Aires Veracruz eta El Tigre eremuetako 150 familia bizilekuz aldarazi zituen ELNren eta Bajo Cauca esparruko Golkoko Klanaren arteko borrokak.

Urtarrilaren 19tik otsailaren 18ra gutxienez 822 pertsona lekuz aldarazi zituzten (461 pertsona heldu eta 361 adingabe)²¹. Gobernu Indigenak eta ACNURek familia lekualdatuen egoera

¹⁸ Kongresuko Giza Eskubideen aldeko Batzordearen informazioaren arabera, 2017an 50.000 pertsona lekuz aldarazi dituzte; eta 2007an, ordea, 500.000 aldarazi zituzten.

¹⁹ ACNURen lan-ildoetan 2018an bake-prozesuari, bizilekuz aldarazi dituzten pertsonen edo bizilekuz aldarazteko arriskuan daudenei eta nazioarteko babesa behar duten pertsonen erreparatzen dieten, prebentzioa, babesa eta irtenbide iraunkorrak emateko.

²⁰ ACNUR (2018a).

²¹ ACNUR (2018b).

jasanezina salatu dute. Horrez gain, agintariek lekualdaketa gehiago ez gertatzeko egiten dituzten egintzak eskasak izatea ere salatu dute. Bestalde, Cáceresko Alkatetzak adierazi du Antiokiako Gobernazioari laguntza eskatu diola, eta Biktimen Unitatearekin elkarlanean ari dela.



Ordezkariek familia lekualdatuak bisitatu zituzten Cáceresko aterpe indigenan (Bajo Cauca esparruan, Antiokian)

Antiokia Departamentua

Giza eskubideen aldeko erakundeek eta tokiko zein departamentuetako instituzioek bereziki kezagarritzat jotzen dute talde kriminalek hartu duten lurralde-tasa, bertan instituziorik ez egoteagatik. Besteak beste, Urabán, iparraldean, ipar-ekialdean eta Bajo Cauca esparruan dagoen krisialdia azpimarratu dute, lurralde horietan talde neoparamilitarrak daudelako, eta narkotrafikoarekin eta legez kanpoko meatzaritza-jardunarekin batera jarduten dutelako.

Gobernuak, aurrerapenak egin ditu krimen antolatuaen aurkako borrokan, eta Fiskaltzan unitate espezifikoak sortu ditu; horrez gain, Antiokiako operatibo batzuek arrakasta izan dute, eta Golkoko Klaneko zenbait buru eta talde neoparamilitar batzuk atxilotzea lortu dute, diru eta koka kopuru handiak konfiskatuta. Baina, hala eta guztiz ere, badirudi horrek guztiak talde horien jardunean eraginik ez izatea. Zantzen arabera, badirudi estrategia zehatza dagoela talde neoparamilitarretako buruak atxilotzeko, baina, berez, beste kide batzuek berehala ordezkatzen dituzte, eta egiturazko kausak ez dira lantzen.

Herriaren Defentsa Erakundeak jakinarazi du ordezkariekin bildu aurretiko gauean 7 pertsona hil zituztela departamentuan. Bereziki larria da Bajo Cauca esparruaren egoera: 2017. urtearen

amaieran granada bat bota zuten merkataritza-gune batean, eta 36 pertsona zauritu zituen. Ofizialki jasota dago 2018ko lehen 20 egunetan 4 pertsona erail zituztela, eta pertsona bat desagerrarazi zutela. Horrez gain, lekualdaketa oso handiak gertatzen ari dira eremu horretan. Halaber, Herriaren Defentsa Erakundeak jakinarazi du paramilitarrek eta ELNk errekrutatzen dituzten adingabeen hilketen kopuruak % 40 egin duela gora (adingabe gehienak hiri-eremuetako delinkuentzia-bandei lotuta daude). Horrez gain, kokaren negozioan mexikar kartelen menpean parte hartzen duten 280 egitura armatu daudela ohartarazten du; eta hainbat modutan parte hartzen dute, narko-ibilbidea kontrolatzeaz gain. Egitura horien artean azpimarratzekoak dira Golkoko Klana («Clan del Golfo»), ELN eta Kolonbiako Autodefentsa Gaitanistak (AGC).

Egitura horietako batzuek sikario gisa lan egiten dute, botere politikoen eta ekonomikoen mende, liderrak ezabatzeke: batez ere, garapen-proiektuen aurkakoak, ekintza komunaleko batzarretan parte hartzen dutenak edo bake-barruti berezietan postulatuak dutenak.

Lurraldea kontrolatzeko borroka jasaten duten lurraldeetan gatazka armatuak egoten dira, eta eremuko komunitate indigenei eta nekazaritzako komunitateei zuzen eragiten diete. Biztanle guztiei eragiten diete, beti baitaude segurtasunik ezaren egoeran.

Antiokiako Gobernu Indigenak salatu duen bezala, gatazka armatuen ondorioz segurtasunik ez egoteaz gain, pertsonen aurkako minak ere egoten dira²², herriei estortsioa egiten zaie, liderren hilketen eta haien aurkako mehatxuen kopuruak handiagotu dira, eta gero eta emakume, gizon eta gazte indigena gehiago errekrutatzen dituzte (batzuetan haien lurraldeetan beste aukerarik ez dagoelako; baina, beste batzuetan, behartu egiten dituzte).

2017ko azken asteetan eta 2018ko lehen asteetan okerrera egin du indarkeria-egoerak. Bestalde, OIAk egin duen salaketari esker, Gobernu Nazionalak indar publikoak bidali ditu eremu horretara, aldi baterako. Sektore sozialek adierazi duten bezala, neurri horrek erasoak geroratu baino ez ditu egiten. Horrekin batera, Zaintzarako Plan Bereziak (*Plan Especial de Salvaguarda*, PES) ez dira betetzen Antiokiako Departamentuan²³; hortaz, OIAk uste du lehentasuna eman behar zaiola Gobernu Indigena eta Guardia Indigena indartzeari, funtsezkoak baitira komunitateak babesteko.

OIAk zuzenean lotzen ditu gatazka horiek eremuan dauden megaproiektuekin eta kokaren negozioarekin, horiek baitira lurraldea kontrolatzeko gako nagusiak. Egoera hori askoz ere zailagoa da, honako faktore hauek aliatzen direnean: tokiko instituzioak, legez kanpoko egile

²² ACNURek adierazi du pertsonen aurkako minak lurralde indigenetatik ezabatzea bake-prozesuaren erronketako bat dela. Haien datuen arabera, erresguardo batzuetan lurraldearen % 30 baino ez da erabilgarria, gainerakoa minaz beteta dagoelako.

²³ Zaintzarako Plan Berezia (PES, gaztelaniazko izenaren arabera) akordio sozial eta administratiboa da; haren bitartez, gidalerroak, gomendioak eta ekintzak proposatzen dira, komunitateen eta nazioaren kultura-ondare immateriala babesteko. 2009ko 2941 Dekretuak eta 2008ko Kultura Ondarearen Zaintzarako Politikak lege-esparrua osatzen dute.

armatuak²⁴ eta indar publikoak. Indar publikoek judizioz kanpoko exekuzioak egiten jarraitzen dute («positibo faltsuak» esaten zaie).

Emakumeen aurkako indarkeria

Gizarte-erakundeek azpimarratzen dute emakumeen aurkako indarkeria-indize oso handiak direla (eta, batez ere, emakume txiroen aurkakoak). Bertako indarkeria-maila eta Juárez herrikoa oso antzekoak dira. Horren harira, kultura-gai bat ere aipatzen dute: indarkeria handitzea lotzen zaio emakumeen «gorputzaren lurraldea» inbaditzeari, gerrako harrapakintzat hartzen dutelako²⁵. Gatazkaren barneko lurraldeetan sexu-indarkeria da nagusi, eta emakume indigenen egoera oso kezagarria da, oinarritzko eskubideak ere ez dituztelako, edo neskei oraindik ere ablazioa egiten zaielako. Arazo horiek ezin izango dira konpondu emakumei eta neskei arreta berezia eta berezia ematen ez bazaie, eta berme eraginkorrak ezartzen ez badira.

Gainera, Antiokiako Defentsa Erakundearen datuen arabera, azterketa kuantitatiboaren emaitzek erakusten dute emakumeen hilketa kopurua igo egin dela.

Azkenik, Emakume Indigenaren Sailak ohartarazi du gatazkaren ondorioak ezberdinak izaten direla, generoaren arabera. Emakumeek, emakumeak izateagatik, sexu-abusuak eta bortxaketak jasaten dituzte. Bikotea hiltzen, desagerrarazten edo errekrutatzen badute, seme-alabekin geratzen dira, bikotearen laguntza barik. Gainera, maitemintzeko helburutzat hartzen dituzte, komunitateetan sartzeko eta informazio lortzeko taktika gisa. Horrez gain, legez kanpoko talde armatuak komunitateetan pertsona baten bila sartzen direnean, emakumeek egiten diete aurre, beren familiak babesteko.

Gizarte-protestaren kriminalizazioa

Kontsulta egin zaien agente guztiek adierazi dute Gobernuak gerratzat hartzen duela protesta soziala. Mobilizazio sozialak etenaldi armatutzat hartzen ditu; eta eragile sozialak, matxinatutzat. Horrela, pertsona horiek kriminalizatu beharra justifikatzen dute. Gobernuak militarren eta polizien jarduna baliatzen du, protestei erantzuteko. Militarrek eta poliziako kideek herritar zibilei jazarri eta erasotzen diete, indarkeria gehiegikeriaz erabilia: gomazko pistolak, gas negar-eragileak, lurraldeetako pertsonaren aurkako minak²⁶, etab. Istiluen aurkako

²⁴ *El Espectador* egunkariak jakinarazi zuen José Mercedes Berrío, Antioquiako Cáceresko alkatea, urtarrilaren 30ean gatibu eraman zutela. Berari leporatzen zioten delitu egiteko akordio larria egin izana eta Golkoko Klanarekin loturak edukitzea (Golkoko Klanak Bajo Cauca esparruan jarduten du).

²⁵ Latinoamerikako emakume feminista aktibistek «gorputz-lurralde» terminoa ezarri zuten, gorputza eta lurraldea lotzen dituzten ikuspegietatik abiatuta. Ikuspegi horren arabera, gorputza lehen lurraldea da, eta lurraldea gorputzean ere sentitzen dugu. Honela azaldu zuten hainbat idazlek, 2017an: «gure bizilekuen aurkako indarkeria egiten denean, eragin hori gure gorputzean ere sentitzen dugu; gure gorputzen aurkako indarkeria egiten denean, bizilekuetan ere sentitzen da eragina».

²⁶ Kongresuko Giza Eskubideen aldeko Batzordeak adierazi duen bezala, pertsonaren aurkako minen ondorioz, 1.200 pertsona hil ziren 2017an.

Eskuadroei Mugikorrak (ESMAdek) arma hilgarriak ere erabili zituen herritar zibilen aurka, azken *mingan*²⁷.

Haiek ziurtatzen dute indar publikoen jardunaren xedea ez dela bakea lortzea. Hortaz, beharrezkoa da eginkizun hori bakearen aldeko egiazko ikuspegitik eraistea, mentalitatea ere aldatu ahal izateko.

Instituzio eta organismo batzuek, ordea, argudiatzen dute indar publikoek jada ez dituztela baliatzen matxinatuen aurkako erasoak, eta beste logika batzuk erabiltzen dituztela. Hori adierazten dute, nahiz eta onartu ESMADen jarduketek arazoak sortzen dituztela, protestak eta mobilizazio sozialak gertatzen direnean. Gainera, haiek aipatzen dute Gobernuak segurtasun-sistema aldatu nahi duela, eta hori aurrerapena dela, aurrez hausnarketa egin behar izan duelako, eta aldaketak egiteko premia onartu duelako.

Horren harira, Nazio Batuek adierazi dute armadarekin eta poliziarekin jarduten dutela giza eskubideen defendatzaileen arloan. Gaur egun, akordioa lortu eta gero sortu den egoera berria eta etorkizuneko bake-eremua direla eta, armadaren eginkizunaren gaineko hausnarketa bultzatzen dute. Lan hori «El ejército del futuro» (Etorkizuneko armada) izeneko proiektuan egiten ari dira.

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN EGOERA

Giza eskubideen defendatzaileen aurkako mehatxuak eta erasoak

Giza eskubideen aldeko erakundeek eta nazioarteko organismoek azpimarratu dute bake-akordioa baliagarria izan dela FARC-EPen eta indar publikoen arteko liskarrak murrizteko, baina,aldi berean, nabarmen igo direla giza eskubideen defendatzaileen eta herri indigenen aurkako mehatxuak eta erasoak. Horren harira, haiek uste dute nazioan garai historikoa bizi izaten ari dela: zehazki, giza eskubideen defendatzaileen hilketen kopuruak % 17 egin zuen gora 2017an, aurreko urtearekin erkatuta.

Antiokiako Departamentuan giza eskubideen defendatzaileen 20 hilketa inguru gertatu ziren 2017an, datuen arabera²⁸. Horren harira, bereziki kezagarria da Urabáko eremuaren, iparraldearen, ipar-ekialdearen eta Bajo Cauca eremuaren egoera.

²⁷ *Minga* ekimenetan herri indigenen duintasuna defendatu nahi da. Herri indigenen mobilizazioa da, eta nazioko zein nazioarteko iritzi publikoaren arreta bereganatu nahi dute, nazioan eta nazioartean herri indigenen eskubideen krisialdi larria aintzat har dadin. Andeatako herri indigenetako arbasoen ohitura bat da: proposamen erkideak eta prozesuak elkarrekin eraikitzean datza. Helburua elkarriketaren bidez gatazkak ulertzea eta irtenbideak aurkitzea da; hau da, ahalegin kolektiboa egiten da, guztien helburu bat lortzeko. *Mingak* ereduak eta eredugarriak dira, eta agerian uzten dute herri indigenen heldutasuna. Hona hemen ezaugarri nagusiak: diziplina, komunitate gisa jarduteko gaitasuna, apaltasuna, lorpen kolektiboen aldeko banakako ekarpena, norberaren helburuei baino lehentasun handiagoa ematea guztien helburuei, betiere kontuan hartuta pertsona bakoitzaren ahalegina ezinbestekoa dela.

²⁸ Zer iturri kontsultatu, giza eskubideen defendatzaileen 2017ko hilketa kopurua aldatzen da: Herriaren Defentsa Erakundeak 15 hilketa jakinarazi du; Indepaz eta Aberriaren Martxa

Instituzioen datuen arabera, 2017ko erasoak bereziki egin dira herritar indigenen, nekazarien, afroen eta ekintza komunaleko batzarretako buruen aurka (batzar horiek landa-eremuetako demokraziaren oinarriak dira). Hilketen % 87 kolektibo horietan egin dira. Horrek erakusten du erasoak sistematiko samarrak izaten direla: biktimak bake-prozesuaren aldekoak izaten baitira; oro har, lurrak berreskuratzea eta legez kanpoko laboreak ordeztzea eskatzen dute, besteak beste. Agerikoa da giza eskubideen defendatzaileak erailtzea oztopo larria dela bake-prozesuan.

Bestalde, gizarte-sektoreek salatzen dute Gobernuak ez duela borondaterik giza eskubideen arloan babesa emateko. Giza Eskubideen Defendatzaileei Bermeak emateko Antiokiako Lurraldeko Mahaia horren adibide argia da²⁹: salaketen arabera, 2017an egin behar izan zituen bederatzi entzunaldietatik bat baino ez du egin, erakundeak ez baitira bertaratu. Gainera, giza eskubideen aldeko erakundeek adierazten dute erasoen erantzule nagusiak Estatu eta indar publikoak direla.

Era berean, Antiokiako Gobernazioak giza eskubideen arloan borondaterik ez izatea zentsuratu dute. Haien ustez, Gobernuak ez ditu bere eginkizunak betetzen, aurrekonturik eza argudiatuta. Horrela, Gobernuaren lana nazioarteko organismoen funtsen bitartez finantzatzen da, eta nazioarteko elkartasunaren mende dago, nahiz eta Kolonbiako Estatuaren erantzukizuna izan.



Euskal ordezkariak Medellinen, Antiokiako Gobernadorearekin batzartuta

mugimenduek jakinarazitako kopurua 23 da; Kolonbia-Europa-AEB Koordinazioaren Antioquiako Nodoa txostenaren arabera eta Antioquiako Giza Eskubideen Defendatzaileei eta Liderrei Bermeak emateko Prozesu Sozialaren arabera, 20 izan dira.

²⁹Bermeak emateko Lurraldeko Mahaia Gobernu Nazionalaren 2011ko Eskubide Planaren esparruan osatu zen. Ikuspegiak hainbat aldiz hurbiltzen saiatu eta ahaleginak hainbatetan huts egin ondoren, azkenean, 2015eko abenduaren 10ean ezarri zen. Gobernuak sinatutako konpromisoak bete ez zituenenez, Mahaia berriro ezarri zen 2017ko urtarrilaren 27an.

Giza eskubideen defendatzaileak babestea

Babesa ematean espezializatu diren erakundeek uste dute, bake-akordioa sinatu eta gero, giza eskubideen defendatzaileen egoera «*habanizatu*» egin dela: zenbait dekretu eman ziren, defendatzaileei babes kolektiboa emateko eta lurraldeak itzultzeko; Alerta Goiztiarren Sistema (SAT) ezarri zen; eta segurtasun-bermeak eman ziren. Arautegi asko egin arren³⁰, horrek ez du berekin ekarri lurraldeak benetan babestea, legegintzako aurrerapenak Estatuaren babes-mekanismoak aldatu dituztelako, baina, ez, ordea, mekanismoen aplikazioa. Gainera, haiek adierazi dute Estatuak ezarri dituen babes-estrategiak orokorrean ez daudela koordinaturik, kasu batzuetan izan ezik. Dena den, kasu horietako batzuetan poliziarekin koordinatzen dira, eta polizia bera askotan erasotzailea da.

Instituzio batzuek, ordea, adierazi dute azpimarratu behar dela babes arloko aurrerapen horien garrantzia, eta tokiko eta departamentuetako agintarien ahalmenak bateratu behar direla, haiek hobeto ezagutzen baitute egoera.

Segurtasun Bermeen Batzorde Nazionala bereziki garrantzitsua da: bake-akordioaren arabera, berari baitagokio krimen-erakundeak eta defendatzaileen hilketak, sarraskiak eta atentatuak egiten dituzten jokabide kriminalak ezabatzea. Akordioetan, gainera, zenbait eginkizun esleitzen zaie, hala nola plan espezifikoak idaztea eta ezartzea eta sektoreen arteko zein lurraldeko koordinazioa ezartzea, besteak beste. Aitzitik, batzordea eratuta egon arren, batzordekideak izendaturik egon arren, eta aurreikusitako bilerak egin diren arren, giza eskubideen defendatzaileen plataformetako kideek, batzordekideak ere direnek, salatu dute ez dela benetako jarduerarik egiten, eta zaila dela esleitutako eginkizunak betetzeko proposamen eta ekintza zehatzak egitea.

Bestalde, instituzio batzuek adierazi dute badaudela lurraldeak, komunitateak eta bertako liderrak babesteko mekanismoak, baina, Estatuaren burokrazia dela eta, zailtasunak izaten dituztela mekanismo horiek erabiltzeko. Gainera, mekanismook ez dira lurraldeen egoeraren arabekoak. Gainera, haiek onartu dute batzuetan babes-eskemak (bizkartzainek, adibidez) ezin dietela aurre egin antolamendu handiko legez kanpoko eragile armatuen erasoari.

Horren harira, gizarte-sektoreek uste dute arrisku-egoerak ezin direla babes-eskemen bidez konpondu, eta komunitateak ezin direla dekretu baten bidez babestu; are gutxiago, dekretua benetan ezartzen ez bada.

³⁰ Erakunde eta instituzio espezializatuekin izandako bileretan arautegi hauek aipatu dira, bereziki:

- Oro har, hartzen da, 2017ko 002 Zuzentarauaren bitartez, prokuradoreek giza eskubideen defendatzaileen lana babesten dutela, agintariei eskatzen baitiete giza eskubideen defendatzaileak ez estigmatizatzea.
- 1448 Legean edo Biktimen Legean giza eskubideen defendatzaileei buruzko atal bat jaso da.
- UNPen babes kolektiboaren 1085 Protokoloa.
- Konstituzio Gortearen 3/73 Autoa, benetako babes kolektiboa ematea erakundeei eskatzen diena.
- 2124 Dekretua, SAT sistema eraldatzen duena, eta 48 orduko erantzuna ezartzen duena.
- 2522 Dekretua, lurraldeak babesteko estrategia definitzen duena.
- 2017ko 2078 Dekretua, babes arloan tokiko, departamentuko eta nazioko erantzuna ematea ezartzen duena.

- Babes kolektiboa

Giza eskubideen defendatzaileen entitateek eta erakunde espezializatuek uste dute Estatuko erakundeek ez dakitela babes kolektiboa ematen herri indigenen errealitatea errespetatuz. Horrekin batera, babes kolektiboaren eskaerak oso gutxitan erantzuten dira, aurrekonturik eza aipatuta.

Horregatik eta mehatxuen kopuruaren igoera nabarmenarengatik, Gobernu Indigenak eta ACNURek salatzen dute Babeserako Unitate Nazionalak (UNPek) ezarritako segurtasun-eskemek ez dutela funtzionatzen, lider indigenak babesteko ikuspegi bereizirik erabiltzen ez dutelako. Horrez gain, babesa eman behar duten justizia erakundeetan gertatzen den kooptazioa dela eta, OIAk askotan eskatu dio UNPi babes-eskemetan ikuspegi bereizia txertatzea eta babes kolektibo propioa aintzat hartzea.

Antiokiako Defentsa Erakundeak uste du babes kolektibo eraginkorra emateko zeregina betetzeko dagoela. Antiokiako Departamentuan 125 udalerrri daude, eta 102 udalerritan herritar indigenak daude. Horretan kontuan hartu behar da lider etniko bati zuzendutako mehatxua ez dela banakako arriskua, baizik eta arrisku kolektiboa, eta horrek babes-estrategia ezberdinak eskatzen dituela, berez.

Egiteko dagoen zeregin horretan aurrera egiteko, 2017ko abenduaren 7ko 20/78 Dekretuak — Ibilbide Kolektiboa arautzen du, eta loteslea da— babes-tresna gehiago ematen ditu, eta beste neurri batzuk sortzeko aukera ere ematen du.

Bestalde, lurraldeen errealitatea ere kontuan hartu behar da, biziki oztopatzen baitu banakako babes-neurrien eraginkortasuna: liderrei etengabe laguntzea oso arriskutsua da; eta batzuetan, instituzionaltasuna heltzen denean, babesa ez emateaz gain, horrek berak arriskua sortzen du.

Bestalde, UNPek badaki eta aitortzen du bere jarduna banakako babesaren ikuspegitik egiten duela, batik bat. Hortaz, kezagarritzat jotzen du Estatuaren erantzuna bakarra neurri horiek izatea, arrisku-egoerak gertatzen direnean.

Bestalde, azaldu du egoera ahulean dauden herriei zuzendutako programa bat martxan dutela (komunitate indigenei, nekazarien eta afroen komunitateei, lurrak aldarrikatzen dituztenei eta ekintza komunaleko batzarkideei zuzenduta). Bertan analisiak egin dituzte, ahulezia motak zehazteko, eta komunitateek parte hartzen dute arriskuaren balorazioan eta kasu zehatz bakoitzaren araberako neurri egokien diseinuan. Era berean, haiek ziurtatu dute Guardia Indigenarekin batera jarduten dutela, eta usadio eta ohitura tradizionalak errespetatzen dituzten babes-tresnak eta estrategiak erabiltzen jakiteko prestakuntza ematen dietela (adibidez, GPS eta bideokamara erabiltzen jakiteko).

- Alerta Goiztiarreko Sistema (SAT)

Alerta goiztiarreko sistemaren mugek ere kezka sortzen dute. Loteslea ez den dekretu batek sistema arautzen du, eta jarduteko baimena instituzioen esku geratzen da (instituzioak Defentsa Ministerioa eta Polizia Nazionala dira). Hala eta guztiz ere, bi alde on antzematen zaizkio: batetik, alertak eskualdekoak izatea, eskualde bakoitzean egoera ezagutzen eta

gainbegirutzen delako; eta, bestetik, Gobernazioaren ordezkariak, Defentsa Erakundea izatea alerta goiztiarren igorlea, horrela gai politikoek ez baitute eraginik izango alerta horietan.

Gizarte-erakundeek eskatzen dute instituzioak erantzule izatea, arriskuan zegoen pertsona bat hiltzen dutenean; eta erantzuleak izatea, eraildako pertsonak babes-neurriak ezarrita zituenean, eta neurriak ez zuzenean ere bai, Estatuak arriskuaren berri bazeukan.

- Babeserako Unitate Nazionala (UNP)

UNPek euskal ordezkariari adierazi dienaren arabera, giza eskubideen defendatzaileen kontrako mehatxuak ezagutu behar dira, arrisku-egoeretan mehatxuaren gauzatzeari aurrea hartu ahal izateko. Horregatik, UNPeko zuzendaritzako 10 aholkulari harremanetan daude informazio-eskaera aktiboak etengabe egiten dituzten komunitateekin eta erakundeekin.

Gainera, 2017ko datuak azaldu dituzte. Urte horretan 200.000 USDko aurrekontua zeukaten, eta 6.200 pertsona babestu zituzten (haietako 3.665 giza eskubideen defendatzaileak dira). Pertsona horiei esleitu zizkieten: 2.552 bizkartzain; 1.060 ibilgailu (452 ibilgailu blindatuta zeuden); 148 laguntza, ibaiko garraiorako; 3.280 hedabide; 208 larrialdiko botoi; eta 362 subsidio, beste leku batean kokatzeko (subsidioek hiru hilabete iraun zuten).

Azkenik, agente erasotzaileei dagokienez, justiziak izaten duen espetxeratze-erantzunik eza ere aipatu da, horrek babes-lanaren premia handitzen duelako. Arrisku-egoera berriekin batera, aurreko egoerak ere metatzen dira, babes-neurriak ezin baitira kendu.



Euskal ordezkariak, UNPekin bilduta.

🔗 **BAKE AKORDIOA EZARTZEA**

Ordezkariekin bildu diren agente guztiek bake-prozesuaren garrantzia azpimarratu dute. Uste dute aurrerapen handia izan dela Kolonbiako herrian, alderdiek konpromisoa hartu dutelako, eta akordioaren osteko fasean gatazkari zuzenean lotutako indarkeria txikiagotu delako. Hala eta guztiz ere, batzuek uste dute La Habana hirian lortutako akordioa idealizatu dela, eta

gogoan hartu behar dela gutxieneko lorpenen agenda baino ez dela. Laburbilduz, haren sinadura bakea lortzeko ibilbide luzeko urrats bat baino ez dela.

Era berean, sektore batzuek uste dute berehalako neurrien eta epe ertaineko neurrien ezarpena onargarria dela³¹. Epe luzeko neurrien inplementazioa, ordea, eskasa da; izan ere, bakea eta garapen jasangarria bermatzeko ezinbestekoak diren egiturazko gaiak jorratu beharko lirateke. Gainera, lehen urtean bete behar ziren neurri guztien aldean, oraindik ere 12 lege-erreforma daude egiteko, bai eta konstituzio-erreforma bat ere.

Bestalde, legegintzaren arloko aurrerapenak egin diren arren, nazioarteko erakundeek eta organismoek erronka zehatzak aipatu dituzte bake-akordioa ezarri ahal izateko. Funtsean, erronka horiek lotuta daude ikuspegi etnikoa eta genero-ikuspegia txertatzeari, bai eta herritar zibilek bake-barruti iragankor berezietan parte hartzeari ere.

Bake-akordioaren betetze-mailaren gainean ez dago adostasunik (Gobernuak adierazi du % 63koa izan dela, eta FARCEk adierazi du % 16koa izan dela). Ahalegin kolektiboak, ordea, ez du lortu herritarren bizi-baldintzak era nabarmenean aldatzea. Gainera, hauteskunde-prozesua dela eta, akordioaren gauzatzea gelditu da, eta, aurreikuspenen arabera, etenaldiak kargu berriak izendatu arte iraungo du. Horri gehitu behar zaio ezin dela ziur jakin Gobernu berriak beteko duen.

1. puntua. Kolonbiako landa-eremu berrirantz: nekazaritzaren erreforma osoa

Presidentetzako Giza Eskubideen Sailak nekazaritzako erreformari lotutako bi osagai adierazi ditu: legegintzako aurrerapenak eta instituzioen garapenak, arrakasta hitza aipatu ez badu ere. Horrez gain, nazioan lurren katastroa egin beharra azpimarratu dute.

Gizarte-erakundeek eta mugimenduek ikuspegi kritikoagoa dute, eta esaten dute egoera atsekabegarria dela, paramilitarrek ez baitute lurrak (itzuli behar direnak) entregatu nahi, eta eremuko lur-jabeen eta enpresen mesedean jokatzen baitute. Izan ere, Nekazaritza, Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Eremu Interesgarrietan (ZIDRES) emakidek aukera ematen dute megaproiektuak egiteko; hortaz, proiektu horietako arduradunak lurren jabe egiten dira, eta, hartara, are zailagoa da lurrak itzultzea.

OIAk adierazi du Bajo Cauca esparruko lurralde indigenen % 95 meatzaritza-proiektuetarako eman direla; hortaz, komunitateek ezin dute erresguardoen titulua baliatu. Hainbat enpresa transnazionalen interesak tartean daude kasu horretan, eta Kolonbiako Estatuaren interesekin artikulatzen dira.

Hori dela eta, gizarte-sektoreek Gobernuko instantzien parte hartzea eskatzen dute, lurrak itzultzeari buruzko 1448 Legea [*Ley 1448 de Restitución de Tierras*] betearazten eta aplikatzen laguntzeko. Era berean, haiek eskatzen dute lurrak aldarrikatzen dituzten pertsonen

³¹ Kroc Institutuak ezarritako kategorian oinarritzen da. Akordioen balantzea egitean, hiru ekintza mota aipatzen dira: (1) berehalako ekintzak eta neurriak; (2) epe ertaineko ekintzak, 2017ko uztaila arteko ezarpen-epea zeukatenak; (3) eta epe luzeko ekintzak, egiturazko gaiei eragiten dietenak.

segurtasuna bermatzea, eta konpentsazio-mekanismoak eskuragarri egotea, lurrei itzultzeko segurtasunik ez dagoenean, bertan paramilitarrak, talde kriminalak eta agente armatuak daudelako.

Haiek, halaber, Biktimen Unitatearen jarduketa irregularrak salatzen dituzte, biktimak batzuetan bakarrik itzuli baitira lurraldeetara, laguntza barik, etxebizitzarako, segurtasunerako, ekonomia-proiektu bat izateko eta abarretarako eskubideak bermatu gabe.

Lurralde-ikuspegia duten garapen-programei dagokienez, gizarte-erakundeek legegintzako aurrerapen onak azpimarratu dituzte, baina ez dago aurrekontu-erabakirik, programa horiek ezartzeko. Gainera, haiek kritikatzin dute plan horietan ikuspegi etniko berezia eztabaidan baino ez egotea, gero komunitateak ez baitira kontuan hartzen. Are gehiago, plan asko lurraldeetara heldu aurretik diseinatzen dira, eta ez da kontuan hartzen tokiko herritarren bizimodua, alkatetzekin baino ez baitira koordinatzen.

2. puntua. Politikan parte hartzea: bakea eraikitzeko bide demokratikoa zabaltzea

Akordioaren 2. puntuan proposatzen da prozesu demokratikoa zabaltzea, eta ahots berriak entzutea, bai eta biktimen parte-hartzea bermatzea ere. Balio sinbolikoa oso handia da, baina ez da behar bezala aurreratu, eta 2018ko maiatzeko presidentetza-hauteskundeetan ez da ezarrita egongo. Atzerapen hori neurri batean gertatu da sektore batzuek uste zutelako bake-barruti berezietako hautagaiak FARC-EPen agintaritzapean zeudela. Horrek eztabaida sortu zuen, biktimak estigmatizatu zituen, eta Kongresuak ez zuen legeria garaiz onartu. OIaren ustez, horrek erakusten du erresistentzia handia dagoela botere-galeraren aurka.

Egoera horrek etsipen handia sentiarazten die gizarte-erakundeei eta herri indigenei. Horrez gain, herri indigenek eta mobilizazioa bertan behera utzi duten FARC-EPen mendeko herriek zailtasun oso handiak izaten dituzte, Kongresuan parte hartu eta sartu ahal izateko. Antiokiako Herriaren Defentsa Erakundeak ere adierazi du «prozesua odoltsua» izateko arriskua dagoela, hemendik 2020ko tokiko hauteskundeak egin arte.

3. puntua. Gatazkaren amaiera


FARC-EPen armagabetze-prozesuari buruz hainbat sektorek adierazi dute Gobernu Nazionalak ez dituela bete konpromisoak: esaterako, mobilizazioa bertan behera utzi duten pertsonen erregistroaren akatsak egiten jarraitzen dute; akats horiek direla eta, pertsona horiek ezin dute identitate-zedula lortu, ezta hari lotutako onurak ere. Nazioarteko organismoek ohartarazi dute FARC-Epei lotutako pertsona indigenen egoera zehatza oso larria dela, prozesutik kanpo daudelako. Antiokiako Departamentuan soilik 1.000 pertsona daude egoera horretan.

Gaitzeko eta Birgizarteratzeko Lurralde-guneei buruz (ETCR) instituzio batzuek adierazi dute oso abandonatuta daudela: bertako biztanleek oso mugatuta baitute mugitzeko askatasuna; birgizarteratzeko aukerak falta direlako; ez baitago ekoizpen-egiturarik, ezta oinarrizko egiturarik ere; eta ez baitira bete ikasketa-prestakuntzari eta trebakuntzari buruzko konpromisoak. Beste instituzio batzuek, ordea, uste dute abandonu horiek arriskutsuak direla,

baina ez direla larriak. Haiek diotenaren arabera, borrokalari ohi gehienak beste kokaleku kolektibo txikiago batzuetara joan dira, edo haien familiekin itzuli dira. Halakoetan, pertsona horiek ezin dira behartu lurralde-gune horietan bizitzen jarraitzera; gainera, ondo irizten diote pertsona horiek bere birgizarteratze-prozesuak bilatzeari (Nazio Batuen datuen arabera, mobilizazioa bertan behera utzi duten 10.000 pertsonatik 2.700 pertsonak jada eskatu dute hiri-esparruetan birgizarteratzea).

Bestalde, 2016az geroztik, Herriaren Defentsa Erakundeak ohartarazi du borrokalari ohiak ez dutela segurtasun-bermerik, eta tokiko biztanleen erasoak, estigmatizazioa eta isolamendua jasaten dituztela.

Halaber, akordioa egin eta gero, gizarte zibilera egokitzeko prozesuan dauden pertsonen kopurua kezagarria da. 2016ko abendutik 2017ko abendura, FARC-EPko 36 borrokalari ohi hil zituzten; eta 2018ko urtarrilaren 1etik otsailaren 10era, 10 hilketa gehiago erregistratu ziren.



UNPEk jakinarazi du borrokalari ohiak eta FARC alderdi politikoko kideak babesteko unitate espezifiko bat sortu zela. Gaur egun, 200 segurtasun-eskema baino gehiago ditu, baina honako bereizgarri hau dute: babeserako mahai teknikoan erabakitzen dira. Gobernuko 5 ordezkari eta FARCEko 5 ordezkari osatzen dute mahaia. Haiek ziurtatu dute Birgizarteratzeko Agentzia (Agencia de Reintegración) aliatu bikaina dela: laguntza-neurriak ematen dituztelako, eta neurriak arrisku-egoeran eragina izaten dutelako; horrez gain, laguntza psikologikoa eta proiektu produktiboak ere ematen dituzte, mobilizazioari utzi dioten pertsonak ihes egin ez dezaten, eta borroka armatuari berriro ekin ez diezaioten.

OIAk eta nazioarteko erakundeek ordezkariari azaldu diete borrokalari ohiak gizartean, gizartearen antolamenduan eta eremu politikoan sartzeko prozesuak kezkatzen dituela. Hala

da, prozesu hori komunitateetan egin behar dutelako, eta, askotan, komunitateak beren biktimek direlako. Gainera, haiek ziurtatzen dute komunitateetan ez dela lanik egiten: ez daude prestaturik borrokalari ohiei harrera egiteko, eta ez da zehaztu birgizarteratze hori egiteko modurik. Gobernu Indigenak bere aldetik galdetzen du FARC-Epek nola lagunduko duten erreparazioa egiten komunitateetan.

4. puntua. Legez kanpoko drogen arazoari irtenbide ematea

Erakundeek eta gizarte-sektoreek kritikatzeko dute legez kanpoko laboreak ezabatzeko dekretua ez betetzea. Ezabatze behartua orokorrean gauzatzen da, baita komunitate indigenetan eta nekazarien komunitateetan ere; izatez, komunitateak askotan hartu eta militaritzen dituzte, aurrez kontsulta egiteko betebeharra urratuta.

Ildo horretatik, OIAk ere salatu du Gobernazioak diseinatu zuen Kokarik gabeko Antiokia Programa lurraldeetan kontsulta egiteko prozesuak errespetatu gabe ezartzen ari dela, eta komunitate indigenak bertako laboreak ezabatzera behartzen dituztela, horrek dakarren arriskuarekin batera³².

Gainera, bake-prozesuak ezartzearen eta legez kanpoko erabilerarako laboreak ordeztuko borondatezko planen aldeko pertsonak paramilitarren helburuak izaten dira, paramilitarrak laboreak ordeztearen aurkakoak direlako.

5. puntua. Gatazken biktimei buruzko akordioa: «Egia, justizia eta erreparazioa emateko eta etorkizunean ez errepikatzeko sistema integrala»

Gizarte-erakundeek eta -mugimenduek uste dute egia, justizia eta erreparazioa bermatuko badira, ezinbestekoa dela kaltegileek beren gain hartzea erantzukizuna, eta egia onartzea. OIAk espero du FARC-Epek jendaurrean onartzea herri indigenei jazarri zieten, eta Antiokian hilketak egin zituztela, Gobernu Indigenaren lurralde-autonomiaren eskaerari erantzuteko. Era berean, onartu egiten du FARC-Epek barne-eremuan ere egia argitu behar dutela, eta komunitateekin lan egin behar dutela, komunitateetako pertsonen eta lurraldeetako legez kanpoko eragile armatuen arteko balizko lankidetzari aitortzeko.

Gainera, borondate politikorik eza salatzen dute, eta Kolonbiako Gobernuari eskatzen diote herri indigenen benetako egoera kontuan hartzeko: komunitate isolatu batzuk ez daude erregistraturik; hortaz, ez dira hartzen erreparazio kolektiboaren xedetzat. Izan ere, lau urtean Antiokiako Departamentuan bi komunitatek baino gehiagok ez dute lortu aurrera egitea eta erreparazio kolektiboaren xede gisa onartuak izatea. Horrenbestez, haiek adierazi dute Biktimen Erregistroa ez dela benetakoa; eta herri-indigenen mundu-ikuskeraren arabera, komunitate indigenei ez zaiela eman benetako erreparazio integrala. ACNUrek ziurtatzen du

³² Honako hauek bereizten dira: labore txikiak, gehienez ere 3 hektareakoak, familiari diru-sarrera eskasak ematen dizkietenak, bizirik irauteko; eta industria-laboreak. Txikiak ordeztzeko, Estatuak borondatezko ordezte-prozesuak ezarri behar ditu; bigarrenak, ordea, nahitaez ezabatu behar dira.

ikuspegi etnikoa eta bereizia ezin zaiela bermatu lekuz aldarazitako herritarrei, baldin eta erregistro bakarrean herri indigenak kontuan hartzen ez badituzte.

Bakearen aldeko Jurisdikzio Bereziaren egoera (JEP) bereziki kezkarria da: Fiskaltzako pertsona batzuek eta epai batzuek ez baitute nahi Amnistia Legea aplikatu; sektore batzuek agertzearen beldur baitira (batik bat, enpresariak); edo alderdi politikoek prozesua mutilatu baitute, gatazkan eginkizun handia izan zuten hirugarren pertsona batzuek prozesutik kanpo utzi dituztelako³³. Gainera, Gobernu Indigenak adierazi du hauxe ez dela kontuan hartu: pertsona indigena batzuek FARC-EPeko kideak ere izan zirela; eta mobilizazioa bertan behera utzi eta gero, ez direla borrokalari ohizat hartu, eta justizia eta bakea bermatzeko prozesutik kanpo daudela. Hori dela eta, ez dute uste benetako justizia eta erreparazioa bermatu ahalko direnik.

Bestalde, Egiaren Batzordea³⁴ 6 gizonen eta 5 emakumeen osatzen dute, eta hainbat talde etniko ordezkatzeko dituzte. Batzordeak gomendio argi eta gogorrak emateko asmoa dauka, gizaratean aldaketa sakonak txertatu ahal izateko. Gainera, benetako independentzia nahi dute, nahiz eta gaur egun nazioarteko lankidetzaren funtsen mende egon.

Oro har, kezka zabala sortzen du Biktimen Legearen indarraldiak³⁵. Batetik, horrelako lege baten indarraldiak ez luke amaiera-eguna eduki beharko; are gehiago, kontuan hartzen bada oraindik ere biktimak daudela. Beste alde batetik, indarraldiaren amaiera-eguna jarrita, egun hori heltzen denean, baliteke instituzionaltasun-sektore batzuek argudiatzea biktimen lana amaitu dela, eta, hartara, legeak ezarritako erreparazio-ekintza eta neurri batzuek ere amaitutzat jotzea (adibidez, lurra berreskuratzeko bulegoak).

Sektore batzuek beldur dira, borondate politikorik eta aurrekonturik ezaren ondorioz, biktimen aldeko lana indarraldiarekin batera amaituko den. Beste sektore batzuek uste dute ezinbestekoa izango dela 2021. urtea eta gero indarraldia luzatzea, denbora eta baliabide gehiago behar direlako; besteak beste, 2014tik aurrera pertsona desagerraraziei ere kalte-ordaina ematea ezarrita dagoelako, eta horrek kalkuluak aldatzen dituelako (60.000 eta 80.000 biktima inguru desagerrarazita daudela zenbatetsi da).

Presidentetzako Giza Eskubideen Sailak adierazi du gaur egun 8.500.000 biktima inguru erregistratu direla, eta Biktimen Unitateak 7 milioi ingururi arreta eman beharko diela, zedula bikoiztuak eta hildako pertsonak erregistrotik kendu ondoren.

³³ Bakearen aldeko Jurisdikzio Bereziaren 100. artikulua aipatu dute (artikulu hori jada aipatu dugu *Testuingurua* azaltzeko atalean).

³⁴ Hauxe da izen formala: *Comisión para el Esclarecimiento de la Verdad, la Convivencia y la no Repetición*.

³⁵ 2011ko 1448 Legea, barne-gatazka armatuaren biktimei arreta, laguntza eta erreparazio integrala emateko neurriak ezartzen dituena, eta 2021a arteko indarraldia duena. Herri indigena eta afrokolonbiar komunitate bakoitzari arau espezifikoak ezartzen dizkio; gainera, talde horiei kontsulta egiteko betebeharra ezartzen du, eta haien usadioak, ohiturak eta eskubide kolektiboak errespetatzeko.

2011ko 4633 Lege-dekretuak ere ardura sortzen du³⁶; dekretu horrek neurriak ezartzen ditu herri eta komunitate indigenetako biktimei, subjektu kolektibotzat hartuta, laguntza, arreta eta erreparazio integrala emateko, bai eta lurra berreskuratzeko eskubideak lehenaraztea ere.

Kapitulu etnikoa

OIAk ondo irizten dio La Habanako negoziazioetan kapitulu etnikoa txertatu izanari, uste baitu herri indigenak zaintzen lagunduko duela. Hala eta guztiz ere, bake-akordioa sinatu eta gero, etsipena nagusitu da prozesuan, herri indigenak berriro biktimizatu eta diskriminatu dituztelako.

Haiek aipatu dute kapitulu etnikoa ez dela aplikatu, eta, ondorioz, ez dagoela bermerik. Komunitateei ez zaie kontsultarik egin gai garrantzitsuei (lurrei eta lurren tituluei) buruz. Herritarren % 90ek ez du lurren gaineko titulurik; bereziki, Senú herriko biztanleek.

Genero-ikuspegia

Gizarte-erakundeek eta nazioarteko organismoek azpimarratzen dute emakumeek bake-prozesuan izan duten eginkizun nagusia. Emakumeek gatazka armatuaren irtenbide negoziatuaren alde egin zuten; beraz, gatazkaren konponbidean parte hartu behar dute. Ildo horretatik, akordioa emakumeen egoerari eta eskubideei arreta berezia emanaz ezartzea eskatzen dute, genero-ikuspegia funtsezkoa baita.

Bake-prozesua eta azken urteotako ibilbideko aurrerapenak direla eta, emakumeen erakundeek itxaropenak dituzte, baina, aldi berean, errealistak dira eta bake-akordioa genero-ikuspegiarekin ezartzeko funtsezkoak diren bi elementu aldarrikatzen dituzte. Lehenik eta behin, akordioaren 1. puntuari lotuta, Kolonbia herrialdeak emakumeen lurren titulartasuna onartzea eskatzen dute; horretarako, erreparazioa behar duten emakumezko biktimeen errolda sortzea proposatzen dute. Bigarrenik, bake-barruti berezien harira azpimarratzen dute, parte-hartze politikoa egiazkoa izango bada, emakumeek aukera berdinetan parte hartzeko dituzten aukerak egiaztatu beharko direla.

Bake-akordioak genero-ikuspegiarekin ezartzeko lorpen handi bat Egiaren Batzordea da: osaeraren parekidetasunarengatik eta batzordearen ikuspegiarengatik. Batzordeak adierazi du emakumezko biktimeen egia azpimarratuko dutela; batez ere, gatazkaren sexu-indarkeria, kaltegiek eta biktimek gehien ezkututzen duten indarkeria mota baita. Halaxe erakutsi zuen

³⁶ 4633/2011 Lege-dekretuan ezartzen da hartzen diren neurriek herri bakoitzaren kultura-balioekin bat etorri beharko dutela; eta kultura-identitatea, autonomia, berezko instituzioak, lurra, sistema juridiko propioak, berdintasun materiala eta iraupen fisikoa zein kulturala izateko eskubideak bermatuko dituztela. Hori guztia diferentziak errespetatzeko printzipioarekin eta pluralismo etnikoa eta kulturala bermatzen duen konstituzio-printzipioarekin bat egingo da.

2005eko 975 Legeak³⁷: kasu horretan hainbat desagerrarazte eta heriotza onartu ziren, baina sexu-bortxaketak, ordea, ez.

Egiaren Batzordeak funtsean lortu behar du ofizialki aitortzea sexu-indarkeria giza eskubideen urraketa dela eta sexu-indarkeriatik bizirik atera diren emakumeak heroiak direla, desagerrarazi zituzten pertsona hilak gatazkaren martirtzat hartzen diren bezala.

Xede hori lortzeko, batzordeak emakumeen erakundeei laguntza emango die, eta prozesuaren metodologiak diseinatuko ditu, emakumeek, ez beste inork, egia konta dezaten.

ASKAPEN NAZIONALERAKO ARMADAREKIN (ELNrekin) NEGOZIATZEA

Gizarte-sektore batzuek ziurtatu dute ELNk bete egin dituela Kolonbiako Gobernuarekin hartutako konpromisoak, baina Gobernuak ez duela bete hartu zituen lau konpromisoetatik bat ere. Hona hemen konpromisook:

1. Alerta goiztiarren sistema indartzea, erantzun azkarra bermatze aldera, gizarte eskubideen defendatzaileen aurkako mehatxuak gertatzen direnean. Salaketen arabera, 2017an sistema hori aldatzeko dekretu bat eman zen arren, ez dago aurrekontu-zuzkidurarik, sistema ezartzeko.
2. ELNko kide espetxeratuentzako programa humanitarioa ezartzea. Programan, besteak beste, presoen osasun-egoera hobetzeko eta familia-nukleoei hurbiltzeko neurriak jaso beharko lirateke.
3. Hainbat protesta sozial mota bide judizialera ez eramatea ezartzen duen legea aplikatzea.
4. Herritar zibilei entzunaldia ematea nazio osoan (elkartzeko mahaiak).

Laburbilduz, presioa handitzeko deia egiten da, bake-akordioaren ezarpena bermatzeko eta ELNrekiko prozesuan aurrera egiteko. Horretarako, mahai berriz ezartzea eta alde bietako borroka armatua bertan behera uztea eskatzen dute. Nazio Batuek negoziazio-prozesu horren garrantzia azpimarratu dute, eta bereziki azpimarratu dute su-etenak nazioarteko zuzenbide humanitarioan eta herritarren lekualdaketa behartuetan izan duen eragin ona.

NAZIOARTEKO ERKIDEGOAREN EGINKIZUNA

Kolonbiako giza eskubideen elkarteek eta gizarte-mugimenduek euskal ordezkariari adierazi diete nazioarteko erkidegoaren eragina aintzat hartzen dutela, eta, horregatik, honako eskaera hauek egiten dizkiotela:

³⁷ Álvaro Uribe sustatu zuen Justizia eta Bakearen Legea. Haren bitartez, legez kanpoko talde armatuen gizarteratzea sustatzeko xedapenak ezartzen dira, bake nazionala lortzen modu eraginkorrean lagun dezaten; bai eta beste xedapen batzuk ere, erabaki humanitarioak hartzeko.

- Giza eskubideen defendatzaileei bizitza- eta segurtasun-bermeak ematea eta instituzioen erantzunaren eraginkortasuna handitzea (besteak beste, Bermeen Mahaiak gaur egun ahulak dira, eta ez dute bizitza bermatzen).
- Akordioaren osteko etapa honetan bake-prozesuari laguntzea; zehazki, gatazka oraindik ez baita amaitu, eta oso finkatuta dauden talde paramilitarrek eta neoparamilitarrek jarduten jarraitzen dutelako. Laguntza horren bitartez, Kolonbiako Estatuak akordioa betetzea eta talde horiekin dituen lotura kriminalak apurtzea lortu nahi da.
- Giza eskubideen egoera Kolonbian aztertzen jarraitzea; bereziki, komunitate etnikoei eta lurraldearen defentsari dagokienez.
- Gizarte zibila indartzea Gobernuarekin berdintasunez negoziatu ahal izateko. Horretan, arreta berezia eman beharko zaie lurraldea defendatzen jarduten dutenei, eta parte-hartze politiko eraginkorrerako eskubidea gauzatu nahi dutenei.

Azkenik, ordezkarioi adierazi digute beldur direla, irudi baketsu faltsua dela eta, nazioarteko komunitateak Kolonbiatik irtetea erabakiko duen; izan ere, lurraldeetan indarkeriak eta zigorgabetasunak oraindik ere jarraitzen dute, eta hainbat helburu bermatzeke daude (protesta egiteko eskubidea, lurraldeari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea, giza eskubideen defentsa edo nekazariak aintzat hartzea).



Euskal ordezkariak, gizarte-elkarte eta -mugimenduekin bilduta.
(OIAREN egoitza, Medellín).

EGOERA ESPEZIFIKOAK

Atal honetan jasota dago Giza Eskubideen Egoera Kolonbian behatzeko eta haren jarraipena egiteko Misioan bildu dugun informazioa. Zehazki, Antiokiako Departamentuan gertatzen diren indarkeria larriko bi egoera espezifiko jorratu ditugu: bata, Giza Eskubideen Defendatzaileak aldi batez babesteko Euskal Programan 2017an babestu genuen lider indigenaren eta haren erakundearen (OIAren) aurkako egoera da; eta bestea, San José de Apartadó-ko Comunidad de Paz komunitatearen egoera.

RICHAR NELSON SIERRA ALQUERQUE ETA OIA

Antiokiako Erakunde Indigenak (OIAK) adierazi duenaren arabera, Richar Nelson Sierra Alquerque defendatzaileak lekuz aldarazi dute, mehatxuek eta beraren bizitzaren arrisku-mailak gora egin dutelako. Cáceres herrialdean jarduten duten legez kanpoko egile armatuen helburu bihurtu da (batik bat, ELNk eta paramilitarrek jarduten dute eremu horretan); hortaz, berak ez dauka bere bizitzaren eta bere osotasun fisikoaren gaineko segurtasun-bermerik txikiak ere.

Era berean, Antiokiako Herriaren Defentsa Erakundeak, laguntza-baliabideak eman dizkionak, beraren kasua ezagutu zuenetik adierazi du defendatzailearen egoera oso arriskutsua dela, heriotza-mehatxuak oso larriak direlako. Horregatik, erakunde horrek gomendatzen dio bere lurraldera, hots, Bajo Cauca eremura, ez itzultzea.

Departamentuko eta tokiko instituzioek uste dute talde neoparamilitarrek eremu horretan jarduteko erabiltzen dituzten logikei jarraitzen diela kasu horrek: gatazkan talde horiek lider indigena eta lider sozial inpartzialak identifikatzen dituzte, informatzea edo salatzea leporatzen diete, eta helburu bihurtzen dituzte. Richar Nelson liderraren kasu zehatza larriagoa da, lider indartsua delako, eta Bajo Caucako komunitate indigenetan aintzatespen handia duelako.

Herriaren Defentsa Erakundeak UNPri eskatu dio neurriak handitzeko. UNPek arduratu behar du egiaztapena eta kontrola egiteaz, mehatxu berriak gertatu diren jakiteko eta horren berri Arriskua ebaluatzeko eta Gomendioak egiteko Batzordeari (CERREMi) emateko. Horren helburua arriskua ebaluatzea da, bai eta babes-neurriak aldatu behar diren erabakitzea ere. Txosten hau egin zen egunean, ebaluazio berriaren emaitzen zain jarraitzen zuten, 2018ko urtarriletik.



Euskal ordezkariek, OIAko ordezkariekin bilduta Medellínen (Antiokian).

Gobernu Indigenak kontuan hartu ditu komunitateek egunero bizi izaten dituzten segurtasunik eza eta indarkeria —legez kanpoko talde armatuek lurraldea kontrolatzeko elkarren aurka izaten dituzten gatazken ondorioz areagotuta—, eta, erronka handi horiei aurre egiteko helburuz, gizarte-elkarteei deia egiten die elkarrekin jardun dezaten eta sareak indar ditzaten. Horrela, estrategiak aurreratzen eta ekintzak bateratzen saiatuko dira, komunitateek lurraldeetan bizitzen jarraitu ahal dezaten.

Ildo horretatik, ACNURek OIAko Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Sailaren lana gorai patzen du: herri indigenen ikuspegitik bakearen definizioa zehazten lagundu duelako, eta azpimarratzen baitu garrantzitsua dela ekintzak definizio horretatik abiaraztea. Gainera, OIAri aitortzen diote, egoera nolakoa den jakin arren, lurraldeetan jarraitzeko egiten duten erresistentzia-jarduna, bai eta komunitateek beren bizitza-plana berriro antolatzeko aukera izan dezaten egiten duten ahalegin handia ere.

Hona hemen Antioquíako Erakunde Indigenaren **eskaerak**:

- Kolonbiako agintariei: mundu-ikuskerari indigenari jarraikiz, bakean bizitzeko eskubidea errespetatzea.
- Gobernuari: ingurumena eta bizimodu tradizionalak zaintzeko jarrera argia izatea, natura-ondasunak suntsitzen eta bertako biztanleak lekuz aldarazten dituzten erazketa-proiektuen aurka.
- UNPi: ikuspegi bereizia duten babes-eskemak aplikatzea, eta babes kolektibo propioa eraginkortasunez onartzea eta gauzatzea.

📍 COMUNIDAD DE PAZ (SAN JOSÉ DE APARTADÓ)

Antiokiako Urabá eremuko San José de Apartadó-ko Comunidad de Paz komunitateko ordezkariak jakinarazi digute Kolonbiako Estatuak eragin duen heriotza-jardunaren biktimak direla. 20 urtean, 2.500 krimen baino gehiago jasan dituzte. Krimenak aurrez jakinarazi ziren, eta horren berri eman zitzaien agintariei, baina, hala egin arren, agintariek ez zuten ezer egin krimen horiei aurrea hartzeko. Azken gertaeren artean, besteak beste, nabarmentzekoak dira komunitate horretako bi kide nagusi abenduaren 29an hiltzen saiatu izana. Ustez, atentatuaren egileak AGC talde paramilitarreko kide armatu batzuk izan ziren³⁸.

Gobernuak militarrek eremu horretatik kentzeko konpromisoa hartu arren, bertan militar kopuru handiak jarraitzen du, eta heriotzak eta kontrol politiko, ekonomiko eta soziala eragiten ditu astero. Euskal ordezkariak adierazi duten bezala, gaur egun agerikoa da paramilitarrek bertan daudela (zibil gisako paramilitarrek familia-etxeak hartu dituzte, eta arma laburrak erabiltzen dituzte); eta 32 bidezidorretan gazteak errekrutatzen dituztela. Gainera, lotura estua dute armadarekin eta poliziarekin.

Bestalde, Comunidad de Paz komunitateak irmo eusten dio lurraldean jarraitzeko borrokari, eta paramilitarren aurrean edo interes transnazionalen aurrean amore ez emateko konpromisoari ere bai, nahiz eta jakin lur horiek desjabetzeko akordioak egin direla. Era berean, eredu ekonomikoari men egiteko prest ez daudenez, komunitateko kideen aurkako presioa nabarmen igo da; horrez gain, protesta egitea epaitegietara eramaten da. Gobernuak difamatzen ditu, eta gerrillari izatea leporatzen die. Hortaz, Gobernuari eskatzen diote akusazioetan atzera egitea.

Jarduketa horiek direla eta, nekazarien iritzia banandu da: komunitateko kideak ez direnek mesfidantzaz begiratzen diete, eta eremuan garapenik ez egotea leporatzen diete, talde paramilitarren jarduna eta eskaerak jasan beharrekin batera.

Testuinguru horretan, Comunidad de Paz komunitateak bertan behera utzi ditu Estatuarekiko elkarrizketak, egiaztatu baitu Estatuak komunitatea sarraskitzeko asmoa duela. Gauzak horrela daude, nahiz eta Konstituzio Gorteak zenbait epai eman eta kautela-neurri batzuk ezarri, bai eta indarkeria osoa erreparatzeko 164 Autoa eman ere³⁹.

Haustura horren ondorioz, eta nagusi den garapen-ereduaren oztopotzat hartuta daudenez, uste dute den-dena aurka dutela bizirik irauteko, nazioarteko komunitatearen laguntza eduki

³⁸ <https://www.fidh.org/es/temas/defensores-de-derechos-humanos/colombia-intento-de-asesinato-de-german-graciano-posso-representante>

³⁹ San José de Apartadóko Comunidad de Paz komunitateak Giza Eskubideen Amerika-arteko Gortearen babes-neurriak ezarrita ditu, eta Kolonbiako Konstituzio Gorteak neurriok berretsi ditu. 2017ko ekainaren 26an, Giza Eskubideen Amerika-arteko Gorteko presidentek Kolonbiako Estatuari gogorarazi zion Comunidad de Paz komunitateko kide guztien bizitza eta osotasun integrala babesteko erantzukizuna duela. Erantzukizun hori Konstituzio Gortearen 2004ko T-327 eta 2007ko T-1025 epaietan jasota dago, bai eta erakunde bereko 034/12 eta 164/12 Autoetan ere. Besteak beste, Estuari eskatzen zaio bere gain hartzea komunitate hori osatzen duten kideen bizitzarako, osotasun pertsonalerako, segurtasun pertsonalerako eta lokomozio askerako eskubideak babesteko erantzukizuna.

arren (besteak beste, Europako parlamentari batzuen laguntza dute, bai eta Estatu Batuetako Kongresuko 25 kiderena ere).

Era berean, euskal ordezkariok jakinarazi digute nazioarteko kooperazioak ere arduratzen dituela, kasu batzuetan ustiapena eta lapurreta eragin dielako nekazarien, indigenen eta afroen komunitateei, komunitate horiek proiektu horien eragina jasaten dutelako. Bestalde, kezagarria da nazioarteko komunitateak Kolonbiako Gobernuari lagundu izana Estatuaren krimenen zigorgabetasuna eragin duten legegintzako aurrerapen batzuk egiten.

San José de Apartadó-ko Comunidad de Paz komunitateak hauxe eskatzen dio nazioarteko komunitateari:

- Lurraldean egon dadin eta laguntza eman diezaion.
- Kolonbiako Gobernuarekin bitartekari aritzea, honako aldarrikapen hauek erantzuteko:
 - Justizia ebaluatzeko batzorde bat sortzea.
 - Zona humanitarioak errespetatzea.
 - San José de Apartadóko hiriguneko agintaritzea-postua eta lurraldean dauden eragile armatuak handik kentzea.

ONDORIOAK

Giza Eskubideen Egoera Kolonbian behatzeko eta haren jarraipena egiteko euskal ordezkariak gizarte-mugimenduei, giza eskubideen elkarteei, nazioarteko erakundeei eta kolonbiar instituzio publikoei eskertzen diete egindako harrera. Era berean, Euskal Ordezkaritzak begirunea eta elkartasuna adierazten dizkie giza eskubideen defendatzaileei, haren kolektiboari eta komunitateei. Halaber, aintzat hartzen dugu indarkeriarik gabeko herrialdea eraikitzeke egiten duten ezinbesteko eta legezko lana; eta azpimarratu egiten ditugu erresistentzia-estrategien ausardia eta duintasuna.

Bestalde, giza eskubideen elkarteek, nazioarteko organismoek eta kolonbiar agintariak adierazi dutenarekin bat etorruta, bake-akordioari buruzko balorazio ona egiten dugu, nahiz eta oraindik erronka garrantzitsuak gainditzeke egon. Erronka horiek, besteak beste, honako hauek dira: gatazkaren egiturazko kausei heltzen dieten neurriak ezartzen aurrera egitea eta, benetako demokrazia eraginkorra lortuko bada, bake zilegi eta iraunkorrerako oinarriak ezartzea, parte-hartze politikoa behar bezala bermatzeko.

Badakigu herrialdeak lan zaila duela aurrean, neurri batean gatazkak eragin duen biktima kopurua handia delako, eta paramilitarren indarkeriak gora egin duelako. Hala ere, prozesuari buruz aipatutako gabezia guztiez gain, euskal ordezkariok norabide horretan lan egiten jarraitzeko adorea ematen diegu, lan horretan genero-diferentziak eta komunitateen etnia- eta kultura-ezaugarriak betiere kontuan hartuta. Prozesu horretan lehentasuna eman beharko zaio biktimen interesari —bereziki komunitate indigenen, afrikar ondorengoen eta nekazarien kasuan, haien bizimodua lurrari lotuta dagoelako—. Gainera, prozesu horiek behar bezalako segurtasunez egitea bermatu beharko da.

Bildu ditugun testigantzak, izandako bilerak eta aztertutako dokumentuak oinarri hartuta, Euskal Ordezkaritzak honako kezka eta gomendio hauek jakinarazten ditu:

KEZKAK

- **Giza eskubideen aurkako indarkeria areagotu** da; besteak beste, lider indigenen aurkakoa, eta bake-prozesuaren alde modu aktiboan jarduten dutenen aurkakoa ere bai. Horrekin batera, giza eskubideen defendatzaileen estigmatizazio-, kriminalizazio- eta judizializazio-prozesuak gauzatzen dira; hortaz, ez dago giza eskubideak defendatzeko bermerik. Giza eskubideen defendatzaileen babesak bake-prozesuaren arrakasta-adierazle gisa balio behar du.
- **Paramilitarismoaren ondorengo talde armatu berriak herrialdeko hainbat eremutan sartu dira, eta indarkeriak gora egin du.** Lehen FARC-Epek kudeatzen zituzten legez kanpoko ekonomiak eta lurraldea kontrolatzeko gatazken ondorioz, komunitate

indigenen, nekazarien komunitateen eta afrikar ondorengo komunitateen eskubideak behin eta berriro urratzen dira; eta emakumeen bizitzari eta gorputzei bereziki eragiten die.

- **Gero eta familia eta komunitate gehiago lekuz aldatzera behartuta daude, eta egoera larriak osatzen dira.** Lekuz aldarazteko kausak hauexek izaten dira: batetik, legez kanpoko talde armatuen arteko gatazkak (paramilitarren eta ELNren artekoak); eta, bestetik, erazketa-jardunak eta «garapen»aren izenean lurraldeetan ezarri diren beste megaproiektu batzuek ingurumenean izaten duten eragina. Lekualdaketa horien ondorioak kulturari, autonomian, lurraldean eta mugimendu indigenaren batasunean sentitzen dira.
- **Gobernuak gizartearen protestak kriminalizatu ditu.** Hartara, indarra gehiegikeriaz erabiltzen du, eta matxinatuen kontrako operatiboak erabiltzen ditu, herritar zibilei jazartzeko eta erasotzeko.
- **Bake-akordioa ezartzeko prozesua partziala da, eta ez da nahikoa.** Ikuspegi etnikoa eta genero-ikuspegiak falta dira. Horrez gain, gatazkaren egiturazko kasuei heltzeko neurriak ere ezarri behar dira.
- **Legez kanpoko laboreak ezabatzeko dekretua ez ari da betetzen.** Laboreak nahitaez ezabatzera behartzeko estrategiak orokortu dira, eta komunitate indigenei eta nekazarien komunitateei aurrez kontsulta egiteko agindua —komunitate horien eskubidea— urratzen da.

GOMENDIOAK

Euskal ordezkariak **instituzioei, nazioarteko erakundeei eta gizarte-erakundeei** eskatzen die lan gehiago egiteko, lurraldeen arteko benetako bake-kultura eta bizikidetzaren alde. Halaber, eskatzen die arreta handiagoa ematea emakumei eta komunitate indigenei, nekazarien komunitatei eta afroen komunitatei, komunitate horiei gatazka armatuak neurri gabe eragin dielako, eta gaur egun ere giza eskubideen urraketa larriak jasaten dituztelako.

Gainera, hauxe gomendatzen die **Kolonbiako instituzioei**:

- Prebentziorako babes-estrategiaz hartuta, defendatzaileen lana agerian uztea, balioa ematea eta legezkotzat hartzea. Gainera, beharrezkoa da babes-mekanismoak garatzen jarraitzea eta erabilgarri dauden tresnen aplikazioan aurrera egitea, arriskuan dauden pertsonen eta komunitateen babes eraginkorra lortze aldera. Horrez gain, arreta berezia eman beharko zaie ikuspegi bereziari, genero-ikuspegiari eta babes kolektiboari.
- Justizia arrunteko esparruan giza eskubideen defendatzaileek pairatzen dituzten jazarpenen, erasoen eta hilketen gaineko ikerketa bizkorrak eta inpartzialak sustatu, eta egileak identifikatu beharko dira, zigorgabetasuna amaitzeko.
- Herri indigenen bizitza, haien autonomia eta segurtasuna bermatu behar dira. Horretarako, aitortzea egin beharko zaie, eta haien lurraldeak legeztatu beharko dira.

Estatuak jardun integrala ziurtatu beharko du, eta ez soilik Indar Publikoarena. Laburbilduz, garapen soziala, ekonomikoa eta kulturala ikuspegi bereiziaz bultzatu beharko dira.

- *Gatazka amaitzeko eta bake egonkorra eta iraunkorra eraikitzeko behin betiko akordioa* eraginkortasunez ezartzen aurrera egin behar da. Eta honako hauek bermatu behar dira, batik bat:
 - Parte-hartze politikoa, landa-garapen integrala eta genero-ikuspegiaren ezarpena.
 - Bake-akordioaren ondorioz sortu diren erakundeei aurrekontua esleitu beharko zaie, behar bezala martxan jartzeko; bereziki, Egia argitzeko, Bizikidetzaren sustatzeko eta Etorkizunean ez errepikatzeko Batzordeari.
 - Borrokalari ohiak segurtasunez gizarteratu behar dira; ekoizpen-proiektuak bultzatu behar dira; eta egiazko parte-hartze politiko eraginkorrerako eskubidea bermatu behar da.
 - Paramilitarismo ondoko egiturak ezabatu behar dira, gaur egun Kolonbiako indarkeria-kasu gehien erantzuleak baitira.
- ELNrekin negoziatzeko prozesuan aurrera egin behar da. Alde biek borroka armatuari utzi behar diote; horrela, indarkeria-mailak behera egingo du, eta akordioaren beste fase batera iragateko aukera egongo da.

Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez babesteko Euskal Programak babes eta eragin politikorako tresna gisa duen konpromisoa berresten du, giza eskubideen aldeko erakundeek euren lana segurtasunez egin ahal izaten laguntzeko.

Alde horretatik, programan parte hartzen duten erakunde publiko eta sozial guztiek arretaz jarraituko diote prozesuari, eta babestutako pertsonen eta haien erakundeen egoerei etengabeko jarraipena egingo diete. Horrez gain, bake-akordioaren ezarpenaren etengabeko jarraipena egingo dute, benetako bakea lortu arte egiteko dagoen bide latzean zehar.

BIBLIOGRAFIA

🔗 TXOSTENAK ETA KOMUNIKATUAK

ACNUR (2018a): *La Agencia de la ONU para los Refugiados (ACNUR) manifiesta su preocupación por los hechos de desplazamiento forzado interno que se han presentado en las últimas semanas en Colombia*. Iheslarietzako Nazio Batuen Goi Komisarioa, (ACNUR); 2018ko urtarrilaren 23koa. Hemen eskuragarri: <http://www.refworld.org/es/docid/5a68f2434.html>

ACNUR (2018b): *Colombia: La Oficina en Colombia del Alto Comisionado de la ONU para los Derechos Humanos y la Agencia de la ONU para los Refugiados manifiestan su preocupación por la persistencia de desplazamientos masivos y violaciones de derechos humanos en el Bajo Cauca*. Iheslarietzako Nazio Batuen Goi Komisarioa, (ACNUR); 2018ko otsailaren 18koa. Hemen eskuragarri: <http://www.refworld.org/es/docid/5a8b0a674.html>

Defensoría del Pueblo (2017): *Informe especial de riesgo: Violencia y amenazas contra los líderes sociales y los defensores de derechos humanos*. Defensoría del Pueblo de Colombia, 2017ko martxoa.

Instituto Kroc (2017): *Informe sobre el estado efectivo de implementación del acuerdo de paz en Colombia*. Instituto Kroc de Estudios Internacionales de Paz, 2017ko azaroa.

Mundubat y PBI (2017): *En los territorios la paz no se siente, la esperanza se mantiene. Informe de Misión Internacional de Verificación sobre la Implementación del Acuerdo de Paz con enfoque de género*. Mundubat eta PBI, 2017ko abendua.

Nodo Antiokia (2018): *Informe Sobre la Situación de las y los Defensores de Derechos Humanos en Antiokia 2017*. Coordinación Colombia-Europa-Estados Unidos, 2017ko abendua.

SIADDHH (2018): *Piedra en el Zapato. Informe Anual 2017*. Programa Somos Defensores, 2018.

Hainbat egile (2017): *Mapeando el cuerpo-territorio. Guía metodológica para mujeres que definen sus territorios*. Colectivo Miradas Críticas del Territorio desde el Feminismo, 2017.

🔗 WEBGUNEAK

ACNUR – Iheslarietzako Nazio Batuen Goi Komisarioa

<http://www.acnur.org>

Agencia para la Reincorporación y la Normalización (ARN)

<http://www.reintegracion.gov.co>

Centro de Recursos para el Análisis de Conflictos

<http://blog.cerac.org.co>

Kolonbiako Estatistika Administrazio Saila

www.dane.gov.co

El Espectador (aldizkari digitala)

<https://www.elespectador.com/noticias>

Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioa

<https://www.fidh.org/es>

Bake Ikerketen Nazioarteko Kroc Institutua (Notre Dame-ko Institutua)

<https://kroc.nd.edu>

Nazio Batuen Erakundeak Kolonbian egindako Egiaztapen Misioa

<https://colombia.unmissions.org>

Noticias Caracol

<https://noticias.caracoltv.com>

Nekazaritzako Jabetzaren Eskubideak berreskuratzeko eta arautzeko Behatokia

<http://www.observatoriodetierras.org/>

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoa

<http://www.ohchr.org>

Bakearen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoa

<http://www.altocomisionadoparalapaz.gov.co/Paginas/home.aspx>

Pacifista (bakea sortzeko plataforma)

<http://pacifista.co>

Quibdó-ko diozesiko pastoral soziala

<http://choco.org>

PBI Colombia

<https://pbicolombiablog.org>

Kolonbiako Errepublikako Presidentetza

<http://wsp.presidencia.gov.co>

Somos Defensores Programa

<https://www.somosdefensores.org>

Biktimen Unitatea (Kolonbiako Gobernua)

<http://www.unidadvictimas.gov.co>